


Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Zeberrioko kantak



Zeberioko kantak



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Zeberioko kantak

Auspoa Liburutegia
(1999)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-96-8

Depósito Legal: NA.: 1.837-1999

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Sarrera

JUAN Manuel Etxebarria Ayesta, Zeberiokoa dugu. Filosofiarenteko ikasketak egin ondoren Derioko Seminarioan, Majisteritza egin zigun. Karrera berria sortuz batera, Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibersitatean, ohorezko matrikula ateraz. 1988-tik, “*Cum Laude*” eta guztizko doktorea dugu Euskal Filologian “Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoa” ikergaiaz.

Gaur egun, Euskaltzaindikoa izateaz gain, doktorego tesietako zuzendari bezala, herri-euskara bizia jasoteko proiektu interesgarri eta behar beharrezko baten dabil Etno-Linguistika bidean.

Beste alde batetik, On Jose Miguel Barandiaranek sortu eta zuzendutako Bizkaiko *Etniker* taldeki-dea dugu Labayruren babespean. Guzti honen ondoren, idazlea ere badugu. Batez ere hiru arlo landu ditu: Euskal Linguistika; Etnografia eta Ipuingintza, Bizkaiera gaurkotuan zein Batuan.

Etno-Linguistika bidean argitaratu berri ditu “Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak” liburu interesgarria, eta hortxe oinarriturik “Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak” euskara batuan.

Lehendik ere bai, baina batez ere, Barandiaranen eskolakoa izanik, doktorego tesia burutzerik hona, argi ere argi ikusi du euskera biziak daukan garrantzia euskararen etorkizunerako.

Juan Manuel Etxebarriak, liburu honetan, Zeberio bere herrian jasotako era askotako kanta-bilduma eder hau eskeintzen digu, musika eta guzti.

Kantu-bilduma hau Zeberiokoa izan arren, baliteke asko eta askorentzat bilduma honetako kantu bat baino gehiago ezagun egitea. Hori ez da arazo. Gure Euskal Herrian, abestiak haizea bezala dabil-tza batetik bestera. Zeberio, mendebaldeko euskararen ertzean dago. Kantu batzuk bertakoak izango dira, baina beste batzuk haragotik etorri eta ikasiak, bertso-paperetakoak esaterako.

Bilduma honen idazkerari dagokionez, transkribitzerakoan, eredu literariorantz jo da, ulerterreza-go izateko. Euskalkia dela eta, errespetatu egin dira Bizkaitik kanpoko eraginak.

Esanak esanda, kanta-bertso bilduma hau irakurtzea besterik ez duzu falta. Gozatu Zeberiorik harako zantzoa!

Berriemaileak

Leonor Ayesta Goikoetxea, neure ama.

Patxi Etxebarria Arroita, neure aita.

Paula Arroita Usategi, pandero-jolea, neure amama.

Maurizia Aldaiturriaga, pandero-jolea, neure auzokoa.

Manu Ayesta Goikoetxea, neure osaba.

Lino Ayesta Goikoetxea, neure osaba.

Leon Bilbao, albokaria, neure osaba.

Joakintxu Goti, trikitilaria, neure auzokoa.

Dolores Artiñano Iriondo, neure amaxea.

Lino Ayesta Amondarain, neure lengusua.

Jose Abrisketa Ayesra, neure lengusua.

Karmelo Ayesta Aranguren, neure lengusua.

Damiana Etxebarria, Zeberioko elbarrengoa.

I Koplak

1: Jotak

Neure laztana zer dozu?
Kolare txarra daukazu;
koloreak gorrituteko
metal ure edan bear dozu.

Itxasoan ura lodi
ta ez dau ondarrrik agiri;
neure laztana ikustearren
pasauko nainteke andi.

Txikitxue zara baia
aziko zara ondino;
aziten ez bazara be
ez zaitudala itxiko.

Txikitxu eta polita
orain amazortzi urte;
alargunaz ezkontzea
asko sentiduko neunke.

Ederregia zara zu
soloan bearrerako;
artizu kaballerua
kalian paseorako.

Ama buruan min dot
ta ez esan aitari
gaubeko errondeak
galdu nauala ni.

Asko gurotzut nik zuri,
beste bateri geiago;
enaz ezkonduko zugaz
iñon besterik badago.

Itxasoan doianean
ontzia kristalezkoa,
zeinbatek esango ete dau
Birjiña Begoñakoa.

Altuan bizi naz baia
kalera daukat gogoa,
ortik jenteak dauka ta
bizitza alosokoa.

Amak ezkondu nadila
Otxandioko urira,
ez dot joan gura baia
ango untzegintegira.

Nere aitak amari
zer egin deutson bazenki:
fraka zarrak saldu eta
gona barria erosi.

Nere aitak amari
gona gorria ekarri;
gona gorri-gorria
zazpi jostunek josia.

Neuk esanda ez zara joan
neure laztanan portura;
atzo goizean esan neuntsan
egun on euki daizula.

Amak ezkondu nadila
nire moduko batekin,
dotea emongo deustala
amalokea bost txitekin.

Agur eta banoa
Ondarroara soldadu;
ez dot joan gura baia
banaruela seguru.

– Antonio, nora zoaz
zure bibolin orregaz?
– Domekan Errigoitira
etorri nai bozu (badozu) neugaz.

Salada batek Zorrontzan
egin dau gona gorria;
ganetik bota deutso
aginidadura zuria.

Auxe da despedidea,
despedidonen tristea!
Egin badot berba txarto,
parkeske nago, jentea.

Entzun dot esan dozula
ez zagozala niretzat;
eskerrik asko, majea,
neu bere enago zuretzat.

Mendi altuan edurra,
bota surtera egurra;
neska galant baten amak
mutil zatarren bildurra.

Euskeraz kantauko dot nik
dana dakiten moduan:
pobrerik ez dala bizi
aberatsaren moduan.

San Blas pasau dan urte bi
Abadiñora nintzan ni;
denpora txarrak emon da
ez nintzan ondo ibili.

Begira nago begira
goiko kamiño barrira,
noz etorriko ete dan
neure maitea errira.

Ama gureak baleki
zelango alabea nazan ni,
egunez negar da negar
eta gaubean lo gitxi.

Panderetatxo barria,
amak Bilboti ekarria,
amar erreal pagauta
erdia urre gorria.

Altuan bizi naz baia
kalera daukat gogoa;
ez dot jakin orain arte
nora dan amodioa.

Begira nago begira
 kamiño-zubi barrira,
 noz etorriko ete dan
 alkatea gure errira.

Eup, Leon Arteakoa,
 albokari famosoa;
 Mauriziak joten deutso
 berari ba panderoa.



Neu - re laz - ta - na zer do - zu?



Neu-re laz-ta-na zer do-zu? Ko-lo-re txa-rra dau-



ka - zu; ko - lo - reak go - rri - tu - te - ko me - tal



u-re_e - dan bear do - zu.— Ko-lo-reak go-rri-tu-



te - ko me - tal u - re_e - dan bear do - zu.—



I - txa-so - an u - ra lo - di__ ta ez



dau_on-da-rrik a - gi - ri; neu-re laz-ta-na_i-kus-



tea - rren pa-sau - ko nain-te - ke an - di__



Txi-ki - txu - e za - ra ba - ia, txi-ki -



txu - e za-ra ba - ia a - zi - ko za - ra-on -



di - no; a - zi - ten ez ba-za__ - ra be ez zai -



tu - da - la i - txi - ko. A - zi - ten ez ba-za__




ra be ez zai - tu da__ - la i - txi - ko.



Txi-ki-txu e- ta po - li - ta, txi-ki-txu e- ta po-



li - ta, o- rain a - ma- zor- tzi ur - te;



a - lar- gu- naz ez- kon - tze - a as - ko sen - ti- tu - ko



neun-ke. A - lar- gu- naz ez- kon - tze - a as - ko



sen - ti - tu - ko neun - ke.



E-de-rre-gi-a za - ra zu, e-de-rre-gi-a za-



ra zu so- lo- an be - a- rre - ra - ko;



ar- ti- zu ka- ba- lle - ru - a ka- li - an — pa- seo -



2: Porruak

Goiak arinak dozak,
beak arinago;
jantzan obeto daki
artajorran baiño.

Mutil anka luzea,
begi arranpalo;
jantzan obeto daki
artajorran baiño.

Errementari baiño
oba da zesteru:
lepo bete egur artuta
kolko bete diru.

Ekin, ekin, gazteak,
neuk esan artean;
etxera joango gara
gaua in (egin) daitenean.

Amaika demoniño
baiagok munduan;
Josepa legusainak
engañau ninduan.

Diman erromeria
maietz pazkoetan;
or datoz mutilok
neskak konbidetan

Neskak konbidetako
Dimako plazea;
mutilok galdu daude
sedazko boltsea.

Amak emon baleutsie
etxean lotsea,
ez eudiela galduko
sedazko boltsea.

Oraingo neskatillak
satorran ankakaz,
mutilok engañetan
sagar ustelakaz.

Oraingo neskatillak
zer dabe merezi?
Errekan beratu ta
galdaran egosi.

Maritxu karduenena,
neskatxa polita,
aurreko trapu zarra
mono ifinita.

Begiak baltzak-baltzak,
azala zuria;
axek topauko jok
lastertxu nobia.

Barregarriak dozak
katuen arrautzak:
ondora biribilak,
puntara zorrotzak.

Gizonak gura badau
euki deskantsua,
andrea artu daiala
zaarra ta antzua.


Andrazkoak badakar
sarri umetxua,
erraz faltauko jako
berari pentsua.



Goi-ak a - ri - nak do-zak, be-ak a - ri -



na - go; jan-tzan o - be - to da - ki



ar - ta - jo - rran bai - ño. Go- iak a - ri -



nak do-zak, be - ak a - ri - na - go;



jan-tzan o-be - to da-ki ar - ta-jo-rran bai - ño.



Mu - til an - ka lu - ze - a, be - gi a-rrampa-



lo; mu - til an-ka lu - ze - a, be - gi a-rram-pa-



lo; jan - tzan o-be-to da-ki ar-ta - jo - rran ba -



ño. Ai! ai! ai!, ar - ta - jo - rran ba -



ño; jan - tzan o-be-to da-ki ar-ta - jo-rran ba - ño.

II

Ume-kantak

3: Baten joan nintzan...

Ba-ten jo-an nin - tzan mer-ka - tu - ra

ni ta_an e - ro - si neu - an

txa - kur - ku - ma - txu bat; txa - kur - ku - ma -

txu - ak, txau! txau! txau!

Nik pa - sau neu - an gau - a!

Baten joan nintzan merkatura ni
ta an erosi neuan txakurkumatxu bat;
txakurkumatxuak txau! txau! txau!
Nik pasau neuan gaua!

Baten joan nintzan merkatura ni
ta an erosi neuan katakumatxu bat;
katakumatxuak miau-miau-miau,
txakurkumatxuak txau! txau! txau!
Nik pasau neuan gaua!

Baten joan nintzan merkatura ni
ta an erosi neuan txarrikumatxu bat;
txarrikumatxuak krum-krum-krum,
katakumatxuak miau! miau! miau!
Txakurkumatxuak txau-txau-txau,
Nik pasau neuan gaua!

Abesti honek ez dauka amaierarik. Umea lotara doanean kantetan hasten da eta loak hartu ahala abestu.

Estrofa bakoitzean animalia bat ugaritzen da.
(Behiak muuu; astoak jarr; ardiak beee; etab.)

4: Obabatxua lo ta lo...



O-ba - ba-txu-a lo ta lo, nik o -

rain e-ta zeuk ge - ro; zeuk gu - ra do-zun or-du-ren

ba-ten bi-ok ein-go-du lo ta lo.

Obabatxua lo ta lo,
nik orain eta zeuk gero;
zeuk gura dozun orduren baten
biok eingodu (egingo dogu) lo ta lo.

Obabatxua lo ta lo,
zuk orain eta guk gero;
mutil andia aziko zara
lolotxu egin ezkeru.

Gure txikitxu biotzekoa,
aita ta amaren laztana,
gau oso-osoa egiguzu
lolo eder gura dana.

Obabatxua lo ta lo,
kanpoan iluntxu dago;
otza be andia egiten dau,
emen barriz bero-bero.

Gure txikitxu biotzekoa,
laster zaitu loak artu;
ames gozo-gozoak egizuz
eta goizean itzartu.

5: Obabatxua txingorrin gorri



O - ba - ba - txu - a txin - go - rrin go - rri, ez e -



gin lo - rik ba - so - an, a - za - ga - ri - ak jan ez za -



gi - zan bil - do - tsa za - rea - la - ko - an.

Obabatxua txingorrin gorri,
ez egin lorik basoan,
azagariak jan ez zagizan
bildotsa zarealakoan.

6: Kantaizu kanta txoria

Kantaizu kanta, txoria,
boteizu malenkonia,
aurten ez dala ezkonduko ez
gura dauana guztia.

7: Aita aita da txuntxulun berde

A musical score for a song in E major (one sharp) and 6/8 time. The melody is written on a single staff with a treble clef. The lyrics are in Basque and are aligned with the notes. The score consists of six lines of music. The first line starts with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 6/8 time signature. The melody is composed of eighth and sixteenth notes, with some rests. The lyrics are: Ai - ta ai - ta da txu - txu - lun ber - de, a - ma. The second line continues the melody with the lyrics: Ma - da - len ma - tu - te, ai - ta jo - an da Vi - to - ri - a - ra a - ma le - po - an ar - tu - te. Ai - ta. The third line continues with the lyrics: e - to - rri da Vi - to - ria - tik a - ma bi - de - an gal - du - te, ai - tak to - pa dau a - ma ka - ma - ran go - na. The fourth line continues with the lyrics: go - rri - a jan - tzi - te. The score ends with a double bar line.

Ai - ta ai - ta da txu - txu - lun ber - de, a - ma

Ma - da - len ma - tu - te, ai - ta jo - an da Vi - to -

ri - a - ra a - ma le - po - an ar - tu - te. Ai - ta

e - to - rri da Vi - to - ria - tik a - ma bi - de - an gal - du -

te, ai - tak to - pa dau a - ma ka - ma - ran go - na

go - rri - a jan - tzi - te.

Aita aita da, txuntxulun berde,
ama Madalen matute,
aita joan da Vitoriara
ama lepoan artute.
Aita etorri da Vitoriatik
ama bidean galdute,
aitak topa dau ama kamaran
gona gorria jantzite.

8: Txikirrikitsu

- Trikirrikitsu, nongoa zara?
- Jauna, ni Markinakoa.
- Dirua baño gurago neunke bazina neure errikoa.

9: Txikitxu polit ori

– Txikitxu polit ori,
zer dozu negarrez?
– Aitak tabernarako
dirurik emon ez.

– Txikitxu polit ori
norena, norena?
– Aitana eta amana,
beste askorena

10: Aita ta ama tabernan dagoz

Aita ta ama tabernan dagoz,
ama ta alaba jokoan;
barriro be ez da faltako
erropa zarra kakoan.

11: Atxea motxea

Atxea motxea konili pan,
zeure semea errotan;
errota txikerra klin klan
Katalina bentan korrentan;
tipirripiton Martin zapaton,
kañabera tronpeta lau kirikon,
txirripi txarrapa, txirripi txarrapa...
txaust!
Pispit ala koskot?

Atxea motxea konili pan,
zeure semea errotan;
joan nintzan basora
topau neuan erbi bat,
jaurti neutsan arri bat,
ta atera neutsan ezkerreko
begi gorri andi bat;
zelemina kanpa, zelemina kanpa...
txaust!
Pispit ala koskot?

Abesti hau jolas bat da. Ume bakoitzak atzamar bat ipinten dau aitita edo amamaren belaunburuan eta kantalariaik hatzamar bakoitza ikutuz doa eta “txirripi-txarrapa edo zelemina kanpa”-ra heltzen

danean, umeetarikoen atzamar bat harrapatu bear dau “Txaust” esanaz eta jarraian harrapatutakoari galdetu zein zigor nahi dauan: Pispit-pitxitxeka egin edo “koskot” buruan kaskatekotxu bat. Umeak be zuhur egoten dira eta kantalariak huts egingo baleu, kantalariari berari egiten jako zigor-itauna.

12: Bost atzamarrak

Le-len-go-txu o - ri, pun-ta me-atz o - ri,
bes-te guz-ti-en ar-te-an txi-ke-rra dok o - ri, la -
ra la la - ra la - ra la-ra la la - ra la -
ra la la - ra la la - ra la - ra la la.

Lelengotxu ori,
punta meatz ori,
beste guztien artean
txikerra dok ori,
lara, la lara...

Bigarrentxu ori,
punta meatz ori,
beste guztien artean
nagia dok ori,
lara, la lara...

Irugarrentxu ori,
punta meatz ori,
beste guztien artean
luzea dok ori,
lara, la lara...

Laugarrentxu ori,
punta meatz ori,
beste guztien artean
okerra dok ori,
lara, la lara...

Bosgarrentxu ori,
punta meatz ori,
beste guztien artean
lodia dok ori,
lara, la lara...

13: Seintxu txikerra

Seintxu txikerra negarrez dago,
ama, emoiozu titia;
aita faltsoa tabernan dago
tunante jokolaria.

14: Txirintxaketan



Txi - rin - txa-ke-tan a - ke-rra jan-tzan, as-to -



a bi-bo-lin jo - ten, a - za - ga-ri - a su - a - ri



puz - ka, er - bi - a u - ru-na_e - ral - ten. Txi-rin -



txa-ke-tan ka - tu - a lo - tan, i - di - a la-be-su - gi -



nen, ku - ku - rru-ku - a o - lla - te - gi - an, txa - ku -



rra e - txe ja - go - ten.

Txirintxaketan akerra jantzan,
astoa bibolin jotén,
azagaria suari puzka,
erbia uruna eraltén (eralgiten)

Txirintxaketan katua lotan,
idia labesuginen,
kukurrukua ollategian,
txakurra etxe jagoten.

Txirintxaketan Bilbora noa,
txirintxaketan zer eiten?
Txirintxaketan zapatatxuak
barri-barriak ekarten.

15: Neure maitea Bilbora noa

– Neure maitea, Bilbora noa
ezer gustetan bajatzu.
– Amodioa firmea da ta
lore bat ekarreidaizu.

Azula barriz zerua da ta
berdea esperantzea;
gorri eder bat ekarreidaizu
alegrau daigun jentea.

III

Bestelako kantak

16: Ezkondu damutuarenak



I - a ur - te be - te da ez -
kon - du na - za - la; e - gun bat gi - txi -
a - go da - mu - tu ja - ta - la.

Ia urte bete da
ezkondu nazala;
egun bat gitxiago
damutu jatala.

Ezkondu ezkeitiño,
mosua garbitzen
iturriko urikan
ez dot nik gastatzen.

Begietati beera
jausten da negarra;
mosua garbitzeko
naikoa da bera.

Pasetan nintzanean
zure portaletik,
negarrak emot(en) eustan
begi bietatik.

Onako lotsabako
lotsa ez dozuna,
ia galdu deustazu
nire osasuna.

17: Urkiolara joan



Ur-ki-o-la-ra jo-an, za-pa-tak u-rru-



tu; Ur-ki-o-la-ra jo-an,



za-pa-tak u-rru-tu; gu-re san An-to-ni-o mai-



te-ak ba-ri-ak ein-go_i-tu. Gu-re san



An-to-ni-o mai-te-ak ba-ri-ak ein-go_i-tu.

Urkiolara joan,
zapatak urrutu;
gure san Antonio maiteak
barriak eingo(d)itu.

Askok egiten deutso
San Antoniori,
egun batean joan, maitea,
ta bestean etorri.

Aita San Antonio
Urkiolakoa,
askoren biotzeko, maitea,
santu debotoa.

Durangon bazkalduta
Mañaritik gora,
aldatz andia dago, maitea,
San Antoniora.

Urkiolara joan
domuru santuruz;
lenengo preguntea, maitea:
Non dao Maria Jesus?

Iturrira joan da
laster da etorri,
mandazain mutilokaz, maitea,
tardau ezpaledi.

Mandazain mutilaren
errosarioa,
birjina Santa Klara, maitea,
Erriojakoa.

18: Aita Juaniko



Ai - ta Jua-ni-ko, se-me Pe-ri-ko zer dau -



ka-zu a - fai-te-ko? O - ri - o-a-za go-zo-go-zo-a, o - pil



be - roa-gaz ja - te - ko.

– Aita Juaniko, seme Periko,
zer daukazu afariteko?
– Orio-aza gozo-gozoa,
opil beroagaz jateko.

– Anton Periko, Solo-barriko,
zer daukak afariteko?
– Orio aza gozo-gozoa,
opil beroagaz jateko.

19: Maritxu Petronila

Maritxu Petronila,
Olabarrikoa,
txakurrak jan deutsala
surteko taloa.

20: San Martinen amabi egiak

ABESTI hau, mitolojiako ipuin batekoa da. Zebe-
rion batutako ipuin batzuetan, deabrua ager-
tzen da. Baserritarrek, maldizio bidez, laguntza es-
katzen eutsoen deabruari euren arima truke. Dea-
bruak baietza emon orduan, eskatutako lanak egi-
ten ebazan. Baina, baserritarrek, euren arima gal-
duta ikusi orduan, abadeagana jotzen eben edo eu-
rak egin beste tratu bat deabruagaz.

Abesti hau, horretariko tratu bat da. Deabruak
esan eutson baserritar horri, San Martinen hamabi
egiak esaten baeutsozan, barrien barriz lortuko
ebala bere arima. Eta halaxe gertatu ei zan.

San Martin:

– Esaik bat.

Baserritarra:

– Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko
gaiozak.

– Esaik bi.

– Erromako altarak bi; gure Jauna bera dok bat,
berak salbauko gaiozak.

– Esaik iru.

– Iru, Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gu-
re Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

– Esaik lau

– Lau, ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru,
Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, be-
rak salbauko gaiozak.

– Esaik bost.

– Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik sei.

– Sei, zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

– Esaik zazpi.

– Zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik zortzi.

– Zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

– Esaik bedratzi.

– Bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

– Esaik amar.

– Amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

– Esaik amaka.

– Amaka milla angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukris-

toren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trlnidadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

– Esaik amabi.

– Amabi apostoluak, amaka milla angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trlnidadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik amairu.

– Ez dok amairu! Oilarrak joten jok munduan, angerutxuak zeruan.

21: Gaztea nintzanean

Gaztea nintzanean,
denpora batean,
ez nintzan soportatzen
ezkondu artean.

Ezkondu eta gero
urrengo gaubean
zurrea artu nendun
oiaren aurrean.

22: Maria Korupekoa

Abesti hau abade bat eta bere arrebari gertatutakoa da. Abadea kazaria zan, eta egun baten ollagorra hil eban; eta, etxera etorri zanean, bere arreba kanpotik zanez, suteko armario baten itxi eban ollagor ori, eta meza emoten joan zan.


Meza emoten dagoela, bere arreba ikusi eban korupean eta honela emon eutson errekadua:

Maria korupekoa,
imini eizu eguerdirako
ollagorra armariokoa,
oriorum, patatorum, perejilorum
per omnia sekula sekulorum.

23: Frantziako kortekoa



E - to - rri nin-tza ne - an Fran -



tzi - a kor - te - tik, a - ma to - pa - tu



nen-dun su - te - an tris - te - rik.

Etorri nintzanean
Frantzia kortetik,
ama topatu nendun
sutean tristerik.

– Zer egiten dau, ama,
orrela bakarrik?
– Nobedade barriak
entzun dodaz, bai, nik.

– Ze nobedade barri
entzun dozu, ama?
– Ezkontan zareala,
bai, seme laztana.

– Ezkonduta nago ta
on dator andrea.
– Ori il eizu eta
artu eizu bestea.

– Nondikoa dakarzu
zure emaztea?
– Frantzia kortekoa
bai, ama neurea.

– Ez dot gura frantzesik,
gitxiago errenik.
– Esan dodan berbeaz
urten bear dot nik.

– Esan dozun berbeaz
urten bear bozu(badozu),
urten bidera eta
il egin bear dozu.

– Ain da polita ba ze
nire emaztea,
ez da posible, ama,
nik ori eitea.

Zuk ez bozu (badozu) posible,
artu anajea,
anaje gaztea ta
estudiantea.

– Juanita, jatsi zaitez
zaldian ganetik,
sar daizudan puñal au
biotzan erditik.

– Ai, orren puñal orren
puntean zorrotza!
Ikusiz beste barik
ilten deust biotza.

Zazpi zaldi daukadaz
izaraz jantzita,
zazpigarrena barriz
perlaz estarita.

13-. Aixek emongotsudaz (deutsudaz)
ixtearren bizirik.

– Arek neuretzat baia
ez itxi bizirik.

– Orrez ganera daukat
urre kalizea;
urre kalizea ta
sobrepellizea.

Danak emongotsudaz (deutsudaz),
itxi ni bizirik.

– Dana neutzako baia
ez itxi bizirik.

– Zazpi nebatxo dodaz
Frantzia kortean.
Ai, areik balekie
emen zer dabilan!

Zortzi izara dodaz
bai neure dotea;
zortzigarrentxu ori
odolez betea.

Kanpai bat entzuten dot
ez dakit nongoa;
igual izango da
agoniakoa.

Abadea ekazu (ekarri egizu)
konfesatu naiten,
arimaren okerrak
arteztu daidazen (dagidazan).

– Abadea urrin dago,
eleiza urrinago;
oin(orain) orretan asteko
asti gitxi dago.

– Amaxe biotz gogor,
muskerrez betea,
subeak ein daiola
gaubean oea!

24: Artoa kamaran

Artoa kamaran motxonilloa,
domingilloa lepoan,
orrexek jaiok pasau artean
ez daukat besterik gogoan.


25: Ederra ta galanta

Ederra ta galanta
biek leku baten,
ona ta aberatsa
latz dago billatzen.

26: Atsoa zarra-zarra

Atsoa zarra zarra,
aburea zarrago;
atso demoniño ori,
ken akit orrago.

27: Arramillete



A - rra - mi - lle - te, a - rra-mi-lle-te, txakur-
rran po-tro-ak a - rra-kal-du-te. A - rra-mi-lle-te, a -
rra-mi-lle-te San - tur-tze, Bil-bo ta Por - tu-ga-le-te.

Arramillete, arramillete,
txakurra(re)n potroak arrakaldute.

Arramillete, arramillete,
Santurtze, Bilbo ta Portugalete.

28: Arraska la tximani


Arraska la tximani,
karraskillea lau,
neska zarraren billa
astean iru gau.

Ubotaren ganean
iru tirolari:
Txomin ta abadea
ta Manuel de Goiri.

29: Patxiko tantanero



Pa - txi - ko tan - ta - ne - ro, txa -



rri - a so - lo - an; a - ta - ra - ten ez



bo - zu ma - ki - llea le - po - an.

Patxiko tantanero,
txarria soloan;
ataraten ez bozu (ez badozu),
makillea lepoan.

30: Maria pitxinena

Marie Pitxinena,
neskatxa polita,
aurreko trapu zarra
moño ifinita.

31: Antonio Goitia

Antonio Goitia,
arotza ta argina,
amaika neska mutileri
jantzan eragina.

32: Saguzarra

Sagu zarra,
eutsi agin zaarra;
ezpozu(ez badozu) ekarten barria,
sagu zaarra buru andia.

33: Belea dabil atxean

Belea dabil atxean,
berentzat zori gatxean;
arantza baltza sartuko al jako
atzeko zulo baltzean.

34: Domiene-Donibane

Gaur dala, biar dala Domiene,
etzi San Juan bigaramune,
gure soloan lapurrik ez,
badago bere erre beitez.
San Juan bezpera gaubean,
atsoak asarratu ziran;
ezauden besterik egiten:
alkarren musturren ausiten.

35: San Juan bagilean

San Juan bagilean,
denpora ederrean,
artoak eta gariak gorde,
subeak eta sapoak erre,
San Juan bezpera gaube.

36: Antonio polonio

Antonio Polonio,
txarrie soloan;
ataraten ezpozu,
bardea lepoan.

37: Jose Mose gitarra

Jose Mose gitarra,
auntza lango bizarra,
botako leuke emetik asita
Frantziarañoeko uzkarra.

38: Katalin

Katalin, Katalin,
katillu zaarrean kaka egin;
katillu barrian gorroa,
Katalin birigarroa.

39: Martin errementari

Martin errementari,
bentanan loroa,
urrea dalakoan
plomoa daroa.

40: Kanpo de Bolantingo



Kan-po de Bo-lan - tin-go — a - ratx a - rro ba -



ten, — ku - ku - ak e - gin di - tu — a -



mar u - me aur - ten. — Ku - ku - ak e - gin



e - ta — txa - mi - lo - txe - ak jan — - -



a be-re ku-kuen - tza - ko ze zo-ri - txa - rra zan.

Kanpo de Bolantingo
aratx arro baten,
kukuak egin ditu
amar ume aurten.

Kukuak egin eta
txamilotxeak jan,
a bere kukuentzako
ze zoritxarra zan!

Bertsio barri bat:

Kanpo de Bolantingo
aratx arro baten,
kukuak egin dituz
amar ume aurten

Kukuak egin eta
amilotxeak jan,
arena kukuarena
desfortunea zan.

Kukuak esan deutso
txamilotxeari:
ez daiola egin
beste bein berari.

41: Din daun! Nor il da?

- Din daun! Nor il da?
- Txomin zapaterua
- Zer ein dau pekatu?
- Auzoko txakurra urkatu,
txixelupean beratu,
labeganean zikitu.

42: Klaudio laudio

Klau - dio lau - dio ka - mi - no, e - txau -
kat di - ru - rik, — lau a - la - ba jau -
ka - daz ez - kon - du ga - be - rik. Bos -
ga - rre - na se - me - a ka - po - te za - rra -
kin, — ko - ne - ju - a di - ru - di be -
re bi - za - rra - re - kin.

Klaudio laudio kamino,
etxaukat dirurik;
lau alaba jaukadaz
ezkondu gaberik.
Bosgarrena semea
kapote zarrakin,
konejua dirudi
bere bizarrakin.

43: Txakur gorria

Txakur gorri polit bat
faltau jaku guri;
señale onak dituz
argitu baledi.

(Lauko hau Pastor Izuela edo Izuelako Artzaiak jarritako bertso-sail batena da. Ikus: *Auspoa*, 106, 42 orrialdean.)

44: Txondonen katua



Txon-do-nek bai ei dau-ka ka-tu-txu for-ma-la;



geuk be-re ez da-ka-gu ain bai-zen ar-ga-la.

Txondonek bai ei dauka
katutxu formala;
geuk bere ez daukagu
ain baizen argala.

Berrogetamar erralde,
zerbait gitxiago;
errotako pisuetan
pisiturik dago.

Barasareak bere
pitxar bete koipe;
gazteak artzen dozue
beste orrenbeste.

Goiko sala barrien
emona da gatzia;
sendatuko ete nintzan
neukan bildur latza.

45: Josepantoni kolore gorri

Jo - se - pan - to - ni ko - lo - re go-ri, ka-pi -

tan ba-ten a-la - ba, a-mak do-te-rik e-mon

ez a-rren nik to - pau-ko dot se - na - rra. As-te -

le-ne-an ez-kon - du e-ta mar-ti - ze-ne-an ba-so -

ra, e-guaz - te-ne-an or-be - la ba-tu e-gu -

e-ne-an e - txe - ra. Ba-ri - ku goi-xean le - xi

e-gin-da za-pa - tu goi-xean pla-za - ra, do-me -

The musical score is written on eight staves in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 6/8 time signature. The lyrics are in Basque and are aligned with the notes on each staff.



Josepantoni kolore gorri,
kapitan baten alaba,
amak doterik emon ez arren
nik topauko dot senarra.


Astelenean ezkondu eta
martizenean basora,
eguaztenean orbela batu,
egunean etxera.

Bariku goixean lexi eginda
zapatu goixean plazara,
domeka goixean ondo apainduta
amarretako mezara.

Azken bertso hau, beste bertsio batean:

Bariekuan bedarra ebagi,
zapatuan laietara...

46: Antonio Mintegiko



An - to - ni - o Goi - ti - a txi - li - bi - te - ru - ak



kuar - ti - llu ter - di gai - tik jo - ten dau soi - nu - a

Antonio Goitia
txilibiteruak
kuartillu terdi gaitik
joten dau soñua.

Antonio Mintegiko
tanbolinteruak
izterrak zabaldua
joten dau soñua.

47: **Juan-Juan porrea**

Juan-Juan porrea,
oan dauka andrea;
oepean zirina,
Juanek berak egina.

48: Lelengo txandatik

Lelengo txandatik
bigarren txandara,
irugarren txandatik
Perue landara.

(Kantatzen den bakoitzean izen berri bat esaten da.)

49: Emen edo emen

Emen edo emen,
bietatik baten,
emen ez badago
egongo da emen.

(Jolas bat da. Esku baten gordetan da harri bat
eta igartzeko.)

50: Peru eta Marie

Perue eta Marie
asarratu dira,
bata bestea(re)na da ta
konponduko dira.

51: Zer da, Antonio Mari

The musical score is written on four staves in a single system. Each staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a common time signature (C). The melody is composed of eighth and sixteenth notes, with occasional rests. The lyrics are written below the staves, aligned with the notes. The first staff contains the lyrics 'Zer da, An-to-nio Mari, joan dan as-pal-di-an? Be-'. The second staff contains 'ti be-za-la on-do ni - re ba-se-ri-an. Ze -'. The third staff contains 'kor bat e-ka-ri dot gaur goiz Do-nos-ti-ra, e -'. The fourth staff contains 'ta o-rain ba-no-a ni-re ba - se-ri-ra.'.

Zer da, An-to-nio Mari, joan dan as-pal-di-an? Be-
ti be-za-la on-do ni - re ba-se-ri-an. Ze -
kor bat e-ka-ri dot gaur goiz Do-nos-ti-ra, e -
ta o-rain ba-no-a ni-re ba - se-ri-ra.

- Zer da, Antonio Mari,
joan dan aspaldian?
- Beti bezala ondo
nire baserrian.

Zekor bat ekarri dot
gaur goiz Donostira,
eta orain banoa
nire baserrira.

Neskatxa bat pasau da
jazkera egokian.
Zer moduz bizi zara
emen Donostian?

*– En aquí bien vivimos,
más mejor que en allí;
en casa de don Pérez
me he ponido a servir.*

–Zer da: orain erderaz
berba eiten dozu?
Euskera aaztu ala
zer pasatu jatzu?

*– En casa los señores
siempre decir a mí:
“Cuidau con que te hables
la vascuence en aquí”.*

– Belarrimotzen batek
engañatu zaitu;
ezkonduten bazara
olakoakin zu,
astean bi bariku
eukiko dituzu.

*– Tu dices lo que quieres,
la vascuence peor es;
la castellano fácil,
elefante también.*

*– Elefante ederra
uste dot zagozela;
baia nok engañatu
zaitu zu orrela?
Agur, bada,
noiz eta bilatu,
txarto esanekoa
guztia parkatu.*

*– No hay que parcasionar,
andar bien en la vida;
expresiones a todos
adio, agur, adiós.*

52: Gabon gaubean

Ga - bon gau-be - an os - pa-tzen do-gu guz-ti -

ok a-fa-ri o - na: be - si - gu, le-batz, ma-ka-llo


sal - tza, ba - ko - txak be-rak aal dau - na. Ge-ro

txu-rrun-plin pla-nak pai-ta-rrak ar-tuak ar-tu-ta, sa-gu


ka - tu-a. E-ra-gi-ok, mu - til, au - rre-ko



rre ar-te-an, gaz-ta-ñak e - rre ar-te-an, txi - pli



txa - pla pun! Ga - bon ga - ba



po - zik i - ga - ro dai - gun.

Gabon gaubean ospatzen dogu
guztiok afari ona:
besigu, lebatz, makallo saltsa,
bakotxak berak aal dauna.
Gero txurrunplin planak
paitarrak artuak artuta,
sagu sagu katua.
Eragiok, mutil,
aurreko tanbolin orri;
gaztañak erre artean,
gaztañak erre artean,
txipli txapla pun!
Gabon gaba pozik
igaro daigun.

53: Santa Barbara

Santa Barbara,
Santa Kurtz,
Jauna, balio zakiguz.
Iñozentearen ogia
Jaunaren miserikordia.

54: Errotari, *molinero*

Errotari, *molinero*,
zaia jan da putza bero.
Putza jo ta mendi gora,
kaka saltzen Durangora.

55: Arre, arre, mandoko

Arre, arre, mandoko,
biar Urduñarako.
Andi zer ekarriko?
Zapata ta garriko,
eraztun bat eriko.

56: Larrosatxuak bost orri

Larrosatxuak bost orri,
klabelineak amabi,
etxe onetako txikitxuena
eskatu leio amari.

57: Aita San Migel

Aita San Migel Iorretako,
zeru altuko lorea,
abure zaarra jantzan ibili
ak eiten jozak barreak!

58: Orozkoko errian



O - roz-ko-ko e - rri - an, a - te - an a - te -

an, O - roz-ko-ko e - rri - an,

a - te - an a - te - an, a - mai-ka nes-ka mu-til ba -

ja- gok al - pe- rrik gal - tze- an. A - mai-ka

nes-ka mu-til ba - ja- gok al - pe- rrik gal - tze- an.

Orozkoko errian,
atean atean,
amaika neska mutil bajagok
alperrik galtzean.

Ezkontzen ez badira
aurtengo urtean,
errematera doa, maitea,
datorren urtean.

Nor izango ete da
errematantea?
Perutxu tokolo Olatzarreko,
faltso bergantea.

(Perutxu-ren tokian edozein izen. Olatzar topónimoaren ordeez beste edozein.)


59: Mari Katalin



Ma - ri Ka - ta - lin O - roz - ko - ko - a, man - da -
zain mu - til za - le - a, zor - tzi mu - ti - lek e - gin -
da dau - ka a - mar ka - na - ko go - ne - a, go - ne -
a dau - ka, ja - ke - a fal - ta, no - bioak
e - in - go - tso be - re - na ba - dau.

Mari Katalin Orozkokoa,
mandazain mutil zalea,
zortzi mutilek eginda dauka
amar kanako gonea;
gonea dauka, jakea falta,
nobioak eingotso (egingo deutso)
berena badau.

60: Matxalen Busturiko



Matxalen Busturiko
izan balitz ona,
ez zala etorriko
Busturitik ona.

Matxalen Busturikok
goizean-goizean
errondea darabil
bere portalean.

61: Nire andrea

Nire andrea andra ona da,
auzoak olan diñoste;
erositako prezio orretan
pozik be salduko neunke.

Txikitxutan banintzan zeozer,
ezkondu eta ezer be ez;
eder zalea banintzan bere
aspertu nintzan ederrez.

62: Au zankoa, au biloa

Au zankoa,
au biloa,
ori betor eta
ori bioa,
pio-pio-pio,
pulu-pulu-pulu!

(Abesti hau, jolas bat dogu. Ume txikiari orkatila banatatik agarretan jako, eta gero umearen zankoak kurtzeatuz abestuten da. Eta azkenean, "pulu-pulu...raz gero, umearen zanko biak batera jasoten dira gorantz.)

63: Bela-bela jauna

- Bela-bela jauna,
non dok aita jauna?
- Artoa ereiten.
- Artoa zertako?
- Olloarentzako.
- Olloa zertako?
- Arrauntzak eiteko.
- Arrauntzak zertako?
- Abadearentzako.
- Abadea zertako?
- Meza emoteko.
- Mezea zertako?
- Purgatorioko arimentzako.

64: Uda barria da ta

Udabarria da ta
Manuela bero;
arexek emoten jok
eskatu ezkeru.

65: Gaztañas de mentugorri

Hau Zeberioko bati gertatutakoa da. Gaztaiñak saltzen joan Bilbora eta, erdera ondo ez ekianez, ba, ahal eban moduan ebilen abesti hori kantetan. Eta halako baten munizipal batek detenitu egin eban berdulerietan ebilelakotan. Baina gero, euskaldunen bat bitarteko, konturatu ei ziran ba ez eukala maleziarik. Mentugorria, gaztaña klase bat dalako.

*Gaztañas de mentugorri,
no hay como la mía;
anoche probó mi gizona
y buen gusto tenía.*

IV

Santa Ageda abestiak

66: Santa Ageda (I)

*Hasi eta gero kantatzeko. Etxekoak lo egon ezke-
ro:*

Lastimea da, etxekotxuok,
lotxu gozoan al zaree?
Gaur Santa Ageda bezpera da ta
mesedez altzau zaiteze.

Kintoarentzat:

Soldadu zoaz soldadu,
amaren seme sobradu;
borondaterik baldin badago
limosna billa gatoz gu.

Limosneruak, Santa Ageda
ez da astean astean;
urtean baten eta beratan
zezeilaren bostean.

Oles da oles ementxe gatoz
ondo lotsaz ta bildurrez,
nagosi jaunak esandakoa
kantauko badu(dogu) edo ez
errespustarik ez du agiri eta
aurrera segitzen guez.

Oles da oles atean,
kantutxu asi gaitean;
Santa Ageda kantatzen gatoz
etxe onetako atean.
Kantauko badu esan deiskula
iñor badago etxean,
iñok ezetzik ez diño eta
kantetan asi gaitean.

Neure kristauak, badakizue
noz dogun Santa Ageda,
lege zarreko usadioan
kantuen gatoz atera
Martirioak esplikatzekeo
lizentziarik ete da?
Sentimenturik izaterikan
emen ez dogu oster.

Kristau maiteak, gogoan artu
nortzuk gagozan atean:
aurtengo urteko kinto gazteak
Santa Agedantzat batzean.
Kantauko bada esan deiskula
iñor badago etxean,
iñok ezetzik ez diño eta
kantetan asi gaitean.

Neure kristauok, ez galtzearren
lege zarreko usuak,
Santa Agedak kantatzen gatoz
aurtengo urteko kintuak.
Libertadea eskatzen dogu,
erritar biotzekuak,
gaur zurori emen esplikatzekeo
Santa onen pasadizuak.



67: Santa Ageda (II)

Neure kristauak, gogoan artu
nortzuk gagozan atean:
aurtengo urteko kinto gazteak
Santa Agedantzat batzean.

Kantauko bada esan daiskula
iñor badogu etxean,
iñok ezetzik ez diño eta
kantetan asi gaitean.

Zeruetara begiak altzau
graziak eskatutzeko,
Santa Agedak zer pasau zuan
gaur emen esplikatzeko.

Prinzipe onen asitasuna
lendabiziko asteko,
martiriozko pena tristeak
zeruan ikusiteko.

Gobernadore Palermokoak
aginpidea bazuan,
Santa Ageda ain zan ederra
bere andratzat nai zuan.

Gizon andia izana gaitik
ori logratu ez zuan,
lendabiziko martirioak
agaitik izan zituan.

Soldaduari agindu eutsan
plazan azotatzeko,
eta mudatu nai ezpazuan
bularrak ebagiteko.

Sententzi ona emoten deutsa
biotza alegratzeko,
orreik guztiok eginda gero
kalabozora sartzeko.

Krudeldadea golpearekin
eudenean azotatu,
soldadu onek esaten eutson
ia nai zuan mudatu.

Santa Agedak erantzun eutsan:
“Jesus gura dot amatu
obeagorik Jaungoikodanik
sekula ez dot pentsatu”.

Ori entzun da jentil gaiztoak
elduten dira bertatik,
kutxilloakaz ebagiteko
bere bularrak ondotik.

Gorputz guztia betetan jakon
odolez beren petxoti,
probidentzia etxakon faltau
Jaunkoikoaren aldeti.

Negargarrizko tristurarekin
bularrak oso kendurik,
kalabozora eroan euden
silla batean arturik.

Ezin leikean inola bizi
izan ez balau grazirik.
Zeinek ikusi eta badago
milagro aundiagorik?

Arik urrengo egunsentian
joan ziran bisitatzera,
ura bizirik topatutzerik
inok ez euan espera.

Gobernadore traidore arek
sentenzia dozu emoten:
plazan iltzeko eroateko
ez baldin bazan mudatzen.

Santa Agedak erantzun eutsan:
“Enaiz bat bere bildurtzen,
zure idolo jaungoiko faltso
bat bere etxat gustatzen”.

68: Santa Ageda (III)

Bedeinkatua izan dedilla
etxe onetako jentea,
pobre ta umilde dabizantzat
badute borondatea.
Santa martirik maitea
dago errukiz betea,
berak alkantzau ta emon daiskula
osasuna eta bakea.

Libertadea eskatzen deusat
etxeko printzipalari,
Santa Agedaren alabantzarik
kantatutzera nator ni.
Graziak ipini deusaguz
santa bedeinkate oni,
onen fedean bizi gaitezan
osasunez eta ongi.

Nok esango dau zer pasau zuan
munduan Santa Agedak?
Lendabiziko azotaduta
kendu eutsezan bularrak.
Gorrotoaren indarrarekin
jentilen biotz gogorra,
instante baten zabaldu jakon
gorputz guztian odola.

Santa au preso sartu zanean
zan milagro bat andia:
zeruetatik bajatu jakon
Jaungoikoaren argia.
Milagro ikaragarria zan
santa onen alegria,
San Pedrok berak kuratu eutson
santa oni gorputz guztia.

Borrego gogor oiek diñaude:
“Ilgo da gaurko gaubean”.
Len bezain firme billatu euden
santa au biramonean.
Esan eutsoen euren onean:
“Nai bozu(badozu) gure legean...
Bestelan presentatuko zara
Kintzianoren aurrean”.

Berriz enperadore onek dino
eroateko argana,
dontzella gazte orrek biotza
len bezain firme darama.
Jaun Zerukoak emana dauka
orain berak ein dauana,
zer amodio andia eukan
gure Jaungoikoagana!

Soldadu batek galdetzen deutso
zergaitik dagon ixilik;
“adoraikezu geure jaungoikoa
egon nai bozu (badozu) bizirik”.
Itz ori ondo aditu eta
santak diñotse bakarrik:
“Nik adoratzen dodana baño
ez dago, gizon, besterik”.

Zer balorea eramán euden
etsai gaiztoan aurrera!
Umildadezko bere begiak
itzuli ziran lurrera.
Emperadore kruek-kruek
an beti beren legera:
“Arrastaka ta desonraturik
atera bedi kalera!”.

Orduan erantzun eutson berak:
“Jaungoikuari graziak!”.
Baña borrego jentil gaiztoak
zauden gorrotoz josiak.
Santaren fede bizi-bizia,
Jaunaren probidentzia:
lurak ikara egin euan ta
arritu ziran guztiak.

Jaun aundi bat etorri zan ara
ikara aren puntuan,
emperadore aren lagun bi
azpian artu zituan.
Ikusirik an orduan antxe
aiek alako moduan,
ze milagroak gertatu ziran
santa onekin munduan!

Iltzen egoan orduan bera
Jesusi deiez eguan,
orain gloriak gozatzen dago
angeruekin zeruan.
Zeruan dala eukiko dogu
Santa Ageda goguan,
bere bizitza kontatutzeko
kanta-kantari moduan.

Kristau deboto batzuek bertan
euden bere gorpua artu,
Kataniako ziudadian
baita bere enterratu.
Kristauak, konsideratu
au onela zan gertatu:
karidadea ematen dunai
berak eingotso(egingo deutso) pagatu.

Adios orain esaten dogu
santa onekin batean,
urte ontxu bat pasau dagigun
osasunagaz bakean.
Pobre umildien artean
beti erruki gaitean,
karidadeak lagunduko dau
zeruetako atean.

69: Santa Ageda (IV)

Kataniako jauregi baten
Santa Ageda bizi zan,
da enperadore Palermokoa
santa onegaz gustau zan.
Agintze aundiak eukezan baina
santa onen gura ez zan,
martiriozko pena tristeak
agaitik emon eutsazan.

Sententzi gogorra emoten deutsa
enperadore kruelak:
bere senartzat artzen ez baeban
ebagiteko bularrak.
Santa Agedak erantzun eutsan
bildurtu bagarik minak:
“Zure jaungoikoa adorau baiño
guragot igaro danak”.

Ori entzunaz batera eurak
doiaz bera azotatzera,
ta umildadezko bere begiak
itzuli ziran lurrera.
Soldadu batek esaten deutsa:
“Mudatu zaitetz, Ageda,
martiriozko eriotzea
ikusteko zaoz bestela”.

Santa Agedak erantzun eutsan:
“Enaz bildurtzen, gizona.
Neure Jaungoikoa zeruan daukat,
Jesukristo gure jauna.
Martirio danak igaro eta
joango naz beragana,
gero zeruan igaroteko
betiko zoriontasuna”.

Ainbeste azote emon da gero
doiaz bularrak ebaten,
gero kartzelan sartu eginda
goizera orduko il daiten.
Bularretatik gorputz guztia
odolez beteta euken,
baina Jaunaren probidentzia
ez jakon inoz faltatzen.

Bularrak kendu eginda gero
arturik silla batean,
kartzela baten sartu audien
soldadu bien artean.
Soldadu biok esaten auden:
“Ilgo da gaurko gaubean”.
Baina osatuta topau audien
andik urrengo goizean.

Kintziano onek ikusiten dau
len bezain firme dagona,
plazan ilteko emoten deutsa
sententzi edo ordena.
Santa Agedak eskatzen eban
Jaunaren laguntasuna,
une atan bertan etorri jakon
zeruko argitasuna.

Lurrak ikara egin auen da
orma aundi bat jausi zan,
ta enperadore onen lagun bi
azpian artu zituzan.
Martiriozko eriotzea
eroan auen munduan,
da orain gloriak gozaten dago
angeruakaz zeruan.

Kristiñau batzuk enterrau auden
Kataniako urian,
bere aurrean auspeztu eta
danak damutu eitean.
Urte ontxu bat ospatzen dogu
santa onen izenean,
bere fedea mundu onetan
beti konserbau daitean.

70: Martirioari itxiteko (V)



Na-gu-si jau-na, au-rre - ra, e - rre-be-
ren-tzia lu-rre - ra; lo-tsa ga - ra - la e - to - rri
ga - ra, jau-na, be - ro-rren au-rre - ra.

Nagusi jauna, aurrera,
erreberentzia lurrera;
lotsa garala etorri gara,
jauna, berorren aurrera.

Alkate jaunagaz egon gara
atzoko arratsaldean;
libertadea geurekin dogu
ibiliteko bakean.

Eder eleizan altare,
arri labratuz pilare;
Birjiña Amak eskojituak
etxe onetakuak dirade.

Usoak doaz otara,
nere begiak lotara;
nagosi jauna, oraintxe noia
berorren koplaetara.

Orain bagoazela gu,
gente noblea, parkatu;
eta bertatik gura genduke
nagosi jauna notatu.

Or be-betxuan kantara,
arria andik atara;
nagosi jauna, oraintxe goaz
berorren notaetara.

Lagunak jataz asiten
alborikara tentatzen:
asiko banaz asi naitela
nagosi jauna notatzen.

71: Agurra nor zer danari

Nagusiari

Eder zeruan dogu izarra,
erreka onduan leizarra;
etxe onetako nagosi jaunak
urre gorrizko bizarra.
Urre gorrizko bizarrarekin
diamantezko espalda,
jauna, berori lango gizonik
erri onetan ez al da.

Erreka aundiak leku askotan,
itxasua uregaz nagosi;
etxe onetako nagosi jauna
propietarioetan nagosi.
Limosnerua bada seguru
geuk ez du iñoz ikusi;
ikusi barik sinesten dogu
jaun ori dala nagosi.

Etxe askotan egiten dira
diruarekin erronkak;
jauna, berori lango aberatsak
erri onetan banakak.
Jauna, berorrek andiak ditu
ganadu eta bai finkak;
eta ganera diruz beterik
ipoteka eta libretak.

Errotapian arria dago,
aren ganean txoria;
etxe onetako nagosi jauna
propietario andia.
Propietario andia eta
diru askoren jaubia;
guri limosna emongo deusku
eun erleko bat barria.

Jardinik jardin maitea beti
udabarrian loria;
etxe onetako nagosi jauna
ondo da gizon noblia.
Ondo da gizon noblia eta
gauza askoren jaubia;
gaur limosnea emongo deusku
dudea barik aundia.

Gizonak onak leku askotan
batian eta bestian;
etxe ontako langorik ez da
emeko erri guztian.
Tabernan meatz allegatzen da,
al dan guztian eleizan;
jauna, berori lango gizonik
erri onetan ez da izan.

Etxe onetako nagosi jaunak
zabalik daukaz biotz bi,
mesede aundiak egin eiteko
mundu onetan askori.
Mundu onetan askori eta
gaur egingo deusku guri;
urte askotan osasunagaz
bizi daitela jaun ori.

72: Abadeari

Izar ederrak zeruan dagoz
mundua argitutzeko;
etxe onetako abade jauna
erlejiñoa zaintzeko.
Aita Santua Erroman dago
Jesukristoren ordeko;
jauna, berori eskojituta
dago aren lekureko.

73: Alkateari

Alkate onak erri askotan
batean eta bestian,
Zeberioquia langorik ez dao(dago)
bat bere ez da Bizkaian.
Tabernan meatz allegatzen da,
eleizan aal dauanian;
jaun ori ona dala guk letxe
dakie mundu guztian.

74: Nagusiari

Itxasoan dao lebatza asko,
erreka onduan iñontza;
etxe onetako nagosi jauna
ondo gizon aberatsa.
Ondo da gizon aberatsa eta
berak ona dau biotza;
gaur guretzako zabalduko dau
kaxa nagosiko giltza.

Libru andiak munduan dagoz
egin eiteko ikusi;

etxe onetako nagosi jaunak
sekretario ikasi.
Sekretario ikasi eta
sueldu andia irabazi;
guri limosna emon eiteko
jaun ori dogu nagosi.

Santu guztiak zeruan dagoz,
pekatariak munduan,
etxe onetako nagosi jauna
onena erri barruan;
limosnerua bada seguru
jenteak segun diñuan,
jaun ori ondo portauko jaku
gauzeagaz edo diruan.

Mundu onetan entzute andia
markesak eta dukiak;
erri onetan askoz geiago
etxe onetako nausiak.
Egitadiak nobleak ditu,
karidadezko begiak;
jaun ori ondo saludatzen dau
erri guztiko jentia.

Ollarra doa otara,
nire begiak lotara;
nagusi jauna, oraintxe noa
berorren koplaetara.

Laño artean izarra,
erreka munan lexarra;
etxe onetako nagusi jaunak
urregorrizko bizarra.

Urregorritzko bizarra eta
urrezurizko samea;
erreal bikoiz egina dauka
eleizarako bidea.

Nagosi jauna egon ezean:

Gradurik gradu notadutzen da
mundu onetan jentea;
nagosi jaunik ez dan lekuan
lelengo etxeko andrea.

75: Etxeko andrea notadutzeko

Eder intxaurren kordena,
guk olan dogu ordena:
etxeko andrea notadutzeko
nagosiaren urrena.

Okaran gorri betea,
aurten da zure urtea;
errealtxu bi emon ezker
badozu borondatea.

76: Abadeari

Ogei gizaldi ia eldu dira
Jesukristo jaio zala;
jaun ori baiño abade oberik
ez dot uste izango zala.
Jauna, berori joan danik ona
Santa Kurtzeko elizara,
faltau be in (egin) barik ango jentea
joan egiten da mezara.

Etxe onetako abade jauna
ondo ona ta noblea;
jauna, berorrek esplikatzen dau
Jesukristoren legea.
Jesukristoren legea eta
Eleiza Amaren ordea;
jauna, berorrek zabalduko dau
zeruetako atea.

77: Alargunari

Armarioan sagua,
ari begira katua;
etxe onetako etxeko andrea,
alargun bedeinkatua.

Bere senarra gizon ona zan
egoanean munduan;
orain gloriak gozatzen dago
Santa Agedagaz zeruan.

78: Etxeko andreari

Etxe onetako andrea,
leku oneko alabea;
ortxe bidean konsultau gara
zelan dan limosnerea.
Esku batean dirua dakar,
bestean lukainka pareta;
altzoa bere gora dakar da
an be dozena arrautzea.

Ortxe soloan madari,
erramak ditu gora adi;
etxe onetako etxeko andreak
Ama Birjiña dirudi.
Bere arpegiak egin eiten dau
espillu bat legez argi;
enbra eder ta galantagorik
ez da mundura etorri.

Eleiza onduan kaltzadea,
andi jentea pasa da;
etxe ontako etxeko andrea
ondo andre galanta da.
Etxeko androri joaten danean
jai egunean mezara,
jente guztia berari adi
oten (egoten) da bere trazara.

Santa Ageda santa aundia
Zeruetako tronuan;
etxe onetako etxeko andrea
axe lingua munduan.
Karidadezko begiak ditu
Santa Agedaren moduan;
biotz obeko andrarik ez da
bat bere emeko munduan.

Etxeko andria on-ona,
zeure gauzaren doi ona;
Pazkoa goixean jantziko dozuz
zeure soñean bost gona.
Zuri ta nabar azpiko gona,
azul ederra ganeko;
andrea, zure parerik ez da
plaza bat ondradutzeko.

Ortxe betxuan errota,
uruna ondo eota;
etxe onetako etxeko andrea
ondo da andra galanta.
Egitadeak formalak eta
gorputza ondo pertxeta;
beren soñean jantzi ederrak
erregiña lez jantzita.

Etxe onetako etxeko andrea
txikitxu konponidea;
biribil eta kuriosea
gorputzez preparadea.
Eta ganera beterik dauka
jeneroz beren etxea;
gaur guretzako zabaldukoitu
kartera eta kaxea.

Ortxe soloan azia,
zuzterra dauka luzia;
etxe onetako etxeko andrea
ona ta kuriosia.
Orrez gainera esan deuskue
zelan dan limosnerea;
etxeko andra onek emongo deusku
dirua eta gauzea.

Ondo andratxu preparadea
etxe onetako andria;
erri onetan onena dauka
baita berorrek ondria.
Ondo andratxu kariñosea.
biotza limosneria;
gaur guretzako emongo deusku
limosna guztiz andia.

Ortxe goitxuan bidia,
aren onduan idia;
etxe onetako etxeko andrea
andratxu konponidia.
Orrez gainera ondo dakigu
zelan dan limosneria;
andratxu onek emongo deusku
dirua eta gauzia.

79: Zaldun gaztea notatzeko

Arantza baltzak orria txiki,
punta aldera loratsu;
orain emendik gura genduke
zaldun gaztea notatu.

Seme ederrak amak azita
leku askotan munduan;
etxe onetako langorik ez dao
emen errialde barruan.
Galantez ondo galante da ta
baita aberatsa moduan;
zaldun gazte ori ezkonduteko
askok gure dau munduan.

Ortxe goitxuan iturri,
ura txorrotik etorri;
etxe onetako zaldun gazteak
amalau urre txintxarri.
Amalau urre txintxarrirekin
zazpi damaren eguzki;
guzti orreri gitxi eretxita
geiago ditu merezi.

Ortxe soluan bedarra,
tximinian dao kedarra;
etxe onetako zaldun gaztea
ondo mutiltxu ederra.

Edertasunak andiak ditu,
galantasuna andiago;
zaldun gazte ta ederragorik
ez dago orixe baño.

Ortxe goitxuko landetan
txoriak dabiz kantetan;
etxe onetako zaldun gaztea
mutil ederra benetan.
Traje ederra daro soñetan,
zapata gorriek oñetan;
zaldun gazte ori lango beste bat
ez dago erri onetan.

Argi ederrak asko daoiz baiña
eguzkia da nagusi;
etxe onetako zaldun gazteak
aren argia dirudi.
Bere arpegia argi ta eder
danok eiten du(dogu) ikusi;
zaldun gazte ta ederragorik
amak ezin leike azi.

Plaza onduan zubia,
andi pasauta egia;
etxe onetako zaldun gazteak
topaurik dauka nobia.
Topaurik dauka nobia eta
dotea be dauka andia;
arreo ederra eta ganera
dirua be partidia.

Gure begiekaz ikusten doguz
izar ederrak zeruan;
etxe onetako mutil gaztea be
mutil ederra munduan.
Edertasunak aundiak ditu
danok dakigun moduan,
ederragorik amak azita
ez dao bat bere munduan.

Altuan dago Mintegi,
kamiño ondoan Artzubi;
etxe onetako zaldun gazteak
opaka ditu nobi bi.
Opaka ditu nobi bi eta
askok aita ta amari;
erri onetan estimadua
dago mutil gazte ori.

80: Seme alabei

Ortxe goitxuan ardiak dagoz
mendian arran soñuan,
etxe onetan seme-alabak
ezkonduteko moduan
euron doteak andiak dira
danok dakigun moduan;
seme-alabok ezkonduteko
askok gura dauz munduan.

81: Dama gazteari

Lore ederra guztiz argia,
uda barriko loria;
duda bagarik axe lingua
emeko dama gaztia.

Klabeledinatxu guztiz polita,
gainera dote aundia;
ori logratzen gau ta egun dabil
erri guztiko jentia.

Damatxu gazte preparadea,
gorputzez ondo arteza,
zure arpegia esan lei dala
jardin bateko larrosa.
Gorputzez ondo linda ta eder,
berbaikunean donosa,
zu lako dama gazte-gazterik
erri onetan bat ez da.

Damatxu gazte konponidea,
aurten da zure urtea;
aurten ezkondu eiten zarala
arturik dauku notea.
Aspalditxuan sententzituta
dago zuretzat dotea:
ogerlekuak millekadazka,
arreo elegantea.

Eleiza onduan kaltzada,
andi jentia pasa da;
etxe onetako dama gaztea
ondo neska galanta da.
Dama gazte ori joaten danean
erromerian plazara,
jente guztia berari adi
oten da beren trazara.

Aratxik aratx ibiliten jaku
mendi altuan okila;
etxe onetako dama gazteak
ofezioa joskila.

Maestra aundiak ofezioetan
leku askotan badire;
danen maestra joskileetan
etxe ontakua daudie.

Damatxu gazte konponidea,
zeure kolore gorria,
zeure matrailla iruditzen jat
klabeliñaren orria.
Klabeliñaren orriarekin
larrosa maiatzekoa;
zeuri begira ementxe gagoz,
damatxu biotzekoa.

Ortxe soluan madari,
erramak dituz gora adi;
etxe onetako dama gazteak
Ama Birjiña dirudi.
Bere arpegiak egin eiten dau
espillu batek lez argi;
dama eder da galantagorik
ez da mundura etorri.

Ortxe betxuan berezi,
azkoreagaz iñuzi;
etxe onetako dama gaztia
askok gure dau erosi.
Askok erosi gura izan arren
gatx dago ori erosten;
arreo ederraz dotea be dauko
milla ogerleko diruten.

Etxe onetako dama gazteak
etxe ingurua biribil;
nobio faltarik ez dau izango
oin legez formal badabil.

Ori logratzen jente aberatsa
etxe onetara dabil,
euren kotxeak daukiezanak
aeroplano ta automobil.

Errotapean arria,
bere ganean txoria;
eraztun baten sartu leiteke,
neskatxa, zure garria.

Zure soloan madari,
erramak ditu amabi;
etxe onetako alaba onek
babalorea dirudi.

82: Txikerrena notatzeko

Ortxe ortuan aza bi,
batak bestea dirudi;
etxe onetako txikerrentxuak
urre kurtzea dirudi.
Etxe onetako txikerrentxuak
edertasunak ugari;
bere arpegi eder orretan
merezi dituz mosu bi.

83: Tabernereari

Geuri entzuten ementxe dauka
taberna onetan jentea,
eta guk ondo kantau eiteko
zarratuta du (dogu) samea.
Samea freskatu egiteko
utsituta dao botea:

len baiño len ba bete eiguzu,
taberneratxu maitea.

84: Santa Ageda eskariak

Ate ondoan azkora,
ia koplarik asko da;
etxeko andrea, ekarri egizu
limosna ori eskura.

Orain nai doguz amaitu,
txarto esanak parkatu;
eskerrik asko ta urte askotan
osasunagaz pasatu.

Etxe ondoan asuna,
orria dauka azula;
eskerrik asko ta urte askotan
osasuna auki daizula.

Etxe onetako andria,
esan bear deutsut egia:
etxe onetan il egin daude
amalau arroako txarria.

Solomo gorri luzea,
aren koipearean dultzea!
Pizka ta pizka ibili barik
ekarri egizu guztia.

Etxe onetako andrea,
giltza aundiaren jaubea;
giltza aundiak artu eizuz ta
egin kaxara bidea.

Kaxara joan ta utsik etorri
ez da zuretzat ondrea;
ez zuretzako ondrea eta
ez guretzat be obea.

Soloan makinarekin,
etxea frontalarekin;
etxeko andra etorri zaiguz
eskuan limosnarekin.

Limosnarik emoten ez dauanari:

Erbia dago azatzan,
erbikumea babatzan;
etxe onetako uzaba jauna
samaraño-ko kakatzan.



Er-bi- a da- go a- za - tzan, er- bi- ku -



me- a ba- ba - tzan; e- txe_ o- ne - ta- ko u- za- ba



jau- na sa- ma- ra - ño- ko ka- ka - tzan.

V

Kopla soltuak

85: Amorebietako...

Amorebietako
bizi-alarguna,
bakarrik egon barik
artuina (artu egina) laguna.

Atsoa zarra-zarra,
aburea zarrago;
atso demoniño ori,
ken akit orrago.

Atsoa ta aburea
asarratu dira;
alkarrenak dira ta
konponduko dira.

Gaztetan erromerian,
dama gazteen erdian,
tira ta tira ibiltzen nintzan
fanfarroikerian.

Neure andrea andre ona da,
auzoak alan dinoste;
erositako prezio orretan
pozikan salduko nauke.

Nere andrea andra ona da
jai eguna danean;
samako mina etorten jako
bearren dagoanean.

86: Urte barri

Urte barrietan usadioa egoten zan abesti hau abestuz aginaldoak eskuratzeko. Umetxoak ziran normalean.

Urte barri,
txarri belarri,
daukonak ez daukonari,
nik ez daukot eta niri.

87: Apalazio zalduna

Erregenetan abestuten zan kanta hau, urtebarrietan lez aginaldoak eskuratzeko. Urtebarri, andrazkoei eskatzen jakien eta Apalazio osteraz gizonzoei.

Apalazio zalduna,
iru erregen eguna,
iru erregenetatik
zotzak eta paluak.
Martin Antonion kontuak:
Martin Antoniori eroan deutsoz
iru ollanda katuak;
orreek azurrek batu ezin da
ak darabizen saltuak,
saltu ta saltu katuak.

88: Pedrotxu

Pedrotxuk egiteko
laztozko zubia,
andixik pasetako
bera ta nobia.

Pedrotxuk koiuteko
sasian zozoa,
Maritxuk egiteko
saldatxu gozoa.

89: Txakur andi txaketan

Txa - kur an - di txa - ke - tan, txa - ku - rran - di
txe - na, txa - kur - an - di txa - ke - tan,
vuel - ta mo - re - na, ir a la ta -
ber - na vi - no be - ber, ve -
nir a ca - sa, pu - che - ro sin co - cer.

Txakur andi txaketan,
txakur andi txena,
txakur andi txaketan,
uelta morena,
ir a la taberna
vino beber,
venir a casa,
puchero sin cocer.

90: Abure lepo makurra

Logure naz ta lo eingo neunke,
baneunke oerako laguna;
oerako laguna badaukat baia
abure lepo makurra.

91: Iru alaba berbaltu edo tartamutuak

Kantatxo honen historia hauxe da: ama batek hiru alaba eukazan. Hirurak berbaltudunak edo tartamutuak. Egun baten mutil gazte bat zan joateko euren etxera, errekadu egiten ezkontzeko. Amak, jakinik alaben arazoa, ixilik egoteko agindu eutsen, berak berba egingo ebala eta. Baina, josten ebilzala, joskilak ziran eta, alabatariko bati firua apurtu jakon eta, akordatzerakoan edo ustekabean, amaren esanari kasu egiteko asti barik, badiño:

- Talan, apurtu on(a) -batak.
- Torontile emoion(a) -besteak
- Amak esan ixilik oteko ta gu ez isilik on -hirugarrenak.

92: Don, don, Beleron

Don don, Beleron,
Belerongo elizan
zazpi mozkor dantzan;
zu mozkorra,
ni mozkorra.
elizatik kanpora.

93: Dun, dun, kandil

Dun, dun, kandil
miki, miki, moskatel,
barriola, barriola mitz
sagarra *manzana*,
ikatz *carbón*,
mujer andrea,
hombre gizon,
gizona katalana,
andrea mujeron,
krisk eta krask, kaskamelon.

94: Itsua eta alkatea

– Eun duket gorde ditut
gaztaña arro baten,
beste eun gordetako asmoa
egun onen baten.

(Alkateak, ehun duketak ostu ebazan, baina beste ehunak ere ostuteko barriro uzten ditu gaztaina harroan. Orduan itsuak beste leku batera eroan ebazan.)

– Dana gura dauanak
dana galdutzen dau;
eskeko itsu batek
alkatea engañau dau.

(Felix Jauregik kontatua Axpe-Manzana (Anbotopean) 1983-VI-30)

95: Gure mutila mutilante



Gu - re mu - ti - la mu - ti - lan - te, mar - ti -



an dau - ka ur - te; be - te bes - te mar - ti - an bes - te, bes -



te gu - re mu - ti - la mu - ti - lan - te.

Gure mutila mutilante,
martian dauka urte bete;
beste martian beste bete,
gure mutila mutilante.

Gure mutila mutila zan,
iñon agiri bere ez zan;
berak intxaurrek kuxau eta
berak ausi ta berak jan.

96: Negar ta negar dago Errosa gurea

Negar ta negar dago
Errosa gurea,
katuak jan deutsal
bai lebadurea.

– Ez egizu, Errosa,
katua mankadu;
saguak kuxetako
katua bear dogu.

97: Agur, Santa Marina

Agur, Santa Marina,
ez baia betiko;
beste urte batean
ez naz etorriko.
Agur, eleiza barri,
agur, San Martoia;
agur, bolalekua,
agur iturria.
Limosnak dira
akabaturik, akabaturik;
Otsandioko jende guztia
dago tristeturik,
epel-epelik.
Agur, Otsandio,
ni banoa urrengorartean;
Jaungoikoak gura badau
etorriko naz
datorren urtean,
bai, kotxean.

98: Politak iru alaba

Donostiako uri txikian
plazia euken zabala,
antxe eukazan alargun batek
politak iru alaba.

Kortesiagaz esketu nion
neuri bat emon deistela,
errespuestia emon ei eustan
mutil pobrea nintzala.

“Ni mutil pobrea banintzan bere
zu panaderuen alaba,
ogi berotan jango zenduke
erroteak emon aala.
Eta triskitin truskitin
larrosa klabelin,
erroteak emon aala;
ardau gozotan edango zenduke
Ondarroako kanala”.

(Idia Garagartza ikasleagandikoa.)

VI

Bertsoak

99: Bertso barriak Lukas de Añibarrok jarriak

Bertso barriak kantau bear duz,
motibo ziran boto bi:
Zeberioke kaballeroak
derrotau bear naude ni

Mundu guztiak galdu bear gaitu
zori tristeko diruek;
deskuidu ori egin bazan ze
ondo bengantzan naiuek.

Ainbeste gizon prudentziako
ibili dira gugana;
ugazabaren aginduagaz
badoiaz Tantanegana.

Tantanegana joateko eta
guztiak joan ez dira;
atxurrik asko konpontzen deusku
ogeiko zarrak balira.

Gure Jainkoak zelan emon lei
mantzinerako gauza ona?
Diruarekin menpe izanekaz
amenazuak auzora.

Dibujante bat endredau daude
ondo dagoan lekutik;
kalte andiak guri eginda
joango dira mundutik.

Dibujante ori koloka daude
beste ofizina batera;
adiskideak ez dira falta,
orain bertsoak atera.

Kostunbrerikan ez dogu euki
zoia bezala egoten;
obrea artu ta joaten gara
lauko freskoak ekarten.

Bearrerako libre daukaguz
lau probintzia osoak;
bear ein barik etxok (ez jok) emoten
pezetarikan auzoak.

100: Mutilzarraren bertsoak



Do-ze-na bat ber - tso ba- rri, gaz-te-an kon-so-
la - ga - rri, neu- re min- ga - ña sa - no dan ar - te
nai ni - tu - kez ja - rri. -

Dozena bat bertso barri,
gaztean konsolagarri,
neure mingaña sano dan arte
nai nitukez jarri.

Begiratuaz alkarri
andrarik ezin ekarri;
mutil zarraren despedidea
ezingo dot jarri.

Egon zaiteze aditzen,
zartu ta nola gabiltzen,
gazte denporan ezkondu barik
fazil da gelditzen.

Orain anjinak barritzen,
indarrak bere urritzen,
soldata gabe orain jarri naz
anaia serbitzen.

Anaiak nauko mendean,
koineta aldamenean;
gazte denporaz akordatzen naz
sasoia joanean.

Orain tristura begian,
nago estado txarrian,
artu pipa bat ortzean eta
suaren guardian.

Leenago erromerian,
dama gazteen erdian,
jira ta bira ibiltzen nintzan
panparroikerian.

Gero ilunabarrean,
estimazio txarrean,
egun guztian oien pardelak
neure bizkarrean.

Iloba daukat arrotza:
"Oa emendik arantza!".
Animosoa ez da gelditzen
zarraren biotza.

Begiratua zorrotza,
soldata barik morrontza,
animosoa ez da gelditzen
zarraren biotza.

Ni neuk daukadan jantzia
badaukat nori utzia:
bi arkondara, praka pare bat,
anaiak utzia.

Mutil zarraren floreza,
iñok ikusi gureza;
nori itxiko ete deutso
berak daukan interesa?

Gaztetan erromerian,
dama gazteen erdian,
tira ta tira ibiltzen nintzan
panparroikerian.

Erromeriara sarri,
andrarik ezin ekarri,
ankak arin ta garria loka
nabil negargarri.

(Bertso hauek Xenpelarrenak dira. Ikus: *Auspoa* 88-89-90, 241 orrialdean, eta *Auspoaren sail nagusia*, 175 orrialdean.)

101: Bertso barriak Anbotoko gizon biri jarriak

Bizkaiko bazter baten,
baserri batean,
gizon bi bizi ziran
Anbotó partean.

Gizon biak ziraden
Peru eta Anton,
euren aldi guztian
biziak Anboton.

Goizean sartzen ziran
taberna batean;
ez eben alde egiten
biaramon artean.

Peruk diñotso: “Anton,
atera pipea,
azunbre terdirekin
beteiun (bete daigun) tripea.

Andreari ostukotsat
ule kopetea
orain kosta eingo jako
bera topatea.

Saldu ta edan jeguan (daigun itanoz)
aguardientea,
niri gustetan jatak
edari fuertea”.

Tabernerari di(ñ)otsa:
“Entzun eina, patrona:
apari txar bat baño
oba don(a) bat ona.

Baldin ezer badona
ekarri eina ona,
dirurik ez ballaikun
fiatu eiguna.

Lebatz edo ternera,
lukainka musturra,
orrekaz e(g)oten dona
tabernan gustura.

Etxean egoten dok
sarri morokila;
arek iminten jostek
estomagu ila.

Txapela eskuan da
pipea mosuan,
aurrera sartzen zara
lelengo pozuan.

Ba(da)tor asto bategaz
errotako Martin;
axek atera ditu
bera astoakin.

Bost bider artu joguk
deskantsu ta pentsu,
jarri adi ondoan
ta artu deskantsu.

102: Ezkondu damutuaren bertsoak

Ezkongaiak ezkontzan
ze modutan asi,
kantuan al baneuke
zerbait erakutsi.

Ze modutan egin
ezkontzeko lanak
ondo ebatzi zituan
Kristo gure jaunak.

Alan agintzen dau ta
Eleizako Amak,
alperrik damuko dau
deskuidatzen danak.

Ez dot ikusten baia
alan dot aditzen,
olango gazte asko
zer moduz gabilten.

Gaube ta gauberdian,
bide erdietan,
pekatu egiteko
peligru andietan.

Zelangoak direan
gaubetako tratuak
neuri esan deustie
eskarmentatuak.

Mutil erdi mozkorrak
agoak beroak,
aien koplak entzuten
neskatxi zoroak.

Guzur eta gaiztoak
sinesten aieri,
zeinbat engañatzen dan
Jaungoikoak daki.

Biar da urte bete
ezkondu nintzala,
egun bat gitxiago
damutu nintzala.

Nire senarrak ez dau
beste ofiziorik,
tabernara joanda
mozkortzen besterik.

Ezkondu nintzanean
bost gona nituan;
bi prenda jarri eta
bi saldu nituan.

Soinean daukadana
dana daukat zarra,
barriak egiteko
daukat modu txarra.

103: Kantabriako bertsoak

Zeruko Aita, markau eidazuz
pekatariaren pausuak,
Kantabriako deskalabruak
ziraden lastimosuak.

Arbola eder bat dala medio
jartzera noa bertsoak,
milla urtean mantendu gaitu
lau probintzia osoak.

Arbola orren zain printzipala
zan Bergarako partean,
arri sillarrez inguratua,
urrezko kaja batean.

Biba Bizkaia Gipuzkoakin,
Alaba eta Naparra;
biba kortean gure fabore
dagon ministro bakarra.

Fueroak kendu deuskuzan ori
izenez ez dot esango,
ilten danean salbaziñorik
ez da orrentzat izango.

(Bertso hauek Txirritarenak dira. Ikus: *Auspoa*, 101-102, 46 orrialdean; eta *Auspoaren Sail Nagusia*, I, 276 orrialdean.)

104: Balentin Berriotxoari bertso barriak Xenpelarrek jarriak

Milla zortzireun irurogeita
zazpigarren urtean,
Kristo zerutik jatsi zanetik
onañoko bitartean.
Iru obispok pasatu duten
martirioaren gogorra,
penagarria izan da oien
munduko bizitzea.

Baten bizitza kanta dezadan
au da bigarren bertsoa,
Elorrioko semea da ta
Balentin Berriotxoa.
Aita ta ama Bizkaian daude,
semea an ila gaixoa,
jentil artean betetu jako
eriotzako plazoa.

Amairu urterik amabostera
estudioak ikasi,
gero aitaren ofizioa
erakusten zuten asi;
gogoan eukan apaiz eginda
naiago zuela bizi,
tormentu gitxi mundu onetan
ez dau beragan ikusi.

Berrogei urte orain zituen
gertatu balitz bizirik,
ogeta zazpi lendabiziko
estudiatzen asirik.
Seminario batera joan zan
arotz ikasirik,
negarrez nabil aren pausoak
ezin adierazirik.

Seminario eder batean
Logroñon apalz egiña,
beste guztiak baño lenago
ikasirik esamiña.
Buru argia izanik eta
fedea santurako fiña,
negarrez urtu leiteke artaz
akordatuko bagiña.

Ogeitaka urte zituela
etzeukan umore ila,
kolejioko maixuak baizen
estudiante abila.
Obispo jaunak, ezaguturik
justua ta umila,
agindu zuen meza eman ta
erretiratu zedila.

Goizero laurak jotzian meza
eman ta konfesiara,
barau egin ta obra onetan
pasatzen zuen denpora.
Pobrerik iñoz etorten bazan
eskean ate ondora,
bere ogia ari emon da
deboziñoa gogora.

Logroñon meza emon zuen ta
Elorriora etorri,
predika eta konpesiñoan
bere errian zan jarri.
Azpeitiako San Inazion
bisita egin du sarri,
azkenerako aren pausoak
ziraden lastimagarri.

Suertatu da gure Balentin
San Inazion sartzea,
pentsatu zuen ango padrea
abertentzian jartzea:
ola nai zuen Santo Domingok
zeukan jantzia artzea,
eta fabore egingo zion
al bazuen ekartzea.

Ango padreak maite izanik
imini zuan kontuan,
agindu zion sartu zedila
Ocañako komentuan.
Bide guztian eskean joan zan,
gabak askotan kanpoan,
bere gorputza azotatuaz
allegatzen zan lekuan.

Allegatu zan Ocañara ta
emon zioten jantzia,
berak nai zuen gorputzarentzat
alako penitentzia.
Munduko gauzak guztiak beti
alde batera utzia,
neke, trabaju, naigabeetan
artu du pazientzia.

Gure Balentin Berriotxoak
egin zituen pausuak,
konsideratzen jarri ezker
dirade lastimosuak.
Beti negarrez Jesusengana
zabaldurikan besuak,
aren biotza atsegintzen du
zeruko usain gozuak.

Paseatzera etzan joaten
komentu-lagunarekin
etxean zeukan tertulia ona
errosario birekin.
Bere gorputza martirizatzen
azote disziplinakin,
orazioak balio badu
zeruan dago Balentin.

Bakardadian oneraño zan
Balentinen istoria,
Ocañatik Manilara ziran
zortzi ministro abia.
Barkuan ere sufritu du ta
makina bat komeria,
biotza penaz urtu leiteke
ez baldin bada arria.

Ocañatikan Manilaraño
barkuan bost ilabete,
jakina dago izango zala
asko leguaz aparte.
Zortzi ministro oien artean
au zan sobresaliente,
gure Balentin ango maixuak
obispo nonbratu dute.

Ango padreak agindu zion
eskubidea artzeko,
predikatzen asi zedila
kristandadean jartzeko.
Konfesiño ta barau egunak
animaz akordatzeko,
pekatuaren mantxa Judasen
kalabozuan sartzeko.

Artoa jana ta ura edari,
arri ganean lo egin,
beti Jesusi erregututzen
gugaz akordatu dedin.
Kristandadia nai zuenari
konfesiñoa eragin,
jakina dago salbajeakin
etzegoala atsegin.

Erreiñu artan gobernadore
salbajeen nagusia,
Jaungoikoaren bildur gabea
estranjerian azia.
Erlejioko fede santuan
jarri nai duen guztia,
agindu zuen plazan kentzeko
ezpatarekin bizia.

Garagarrilaren lendabiziko
goizean ziran asi,
arratserako bost millatatik
etzan garaurikan bizi.
Fede santuko kristabak ilten
zituenean ikusi,
Balentin bere lagunetara
abiatu zan igesi.

Pedro Albato eta bestea
Jeronimo Ermosilla,
gero Balentin Berriotxo
saltatu zan euren billa.
Iru obispo batzartu ziran,
zeukaten biotz umilla,
aien bizitza laster izan da
martirizatu ta illa.

Arrapatuta kate gogorrez
lotuak zeuden alkarri,
ilteko emon sententzia ta
kartzela banatan jarri.
Soldadu tropa batean jarri
gero plazara ekarri,
ezpateagaz sama moztuta
dirade lastimagarri.

Orretarako eskatu zuten
ordubeteko lekua,
Jaungoikoari egin artean
bere ofrezimentua.
Gobernadore batek emon dau
pena kantidadekua:
iñor aiekaz damutzen bada
bertan kentzeko burua.

Iru obispo oien gorpuak
ogei eta lau orduan
eduki eta enterratuak
urrikaltzeko moduan.
Oriente aldeko probintzian bertan
Jeu-dat deitzen dan lekuan,
erregutzen dot aien arimak
egon daitezcan zeruan.

Orra ogetalau bertso barri
ejenplo eder batian,
oroipengarri kanta daitezcan
pekatarien artian.
Ai, nire Jesus, eskatzen deutsut
grazia errematian:
komeni da ta sartu gagizuz
zeruetako glorian.

(Ikus: *Auspoa* 88-89-90, 367 orrialdean; eta
Auspoaren Sail Nagusia, 8, 277 orrialdean.)

105: Lumoko neskatillari bertso barriak

Errian zertan zabilz
iñor engañetan,
ez diranak kontatzen
bazter guztietan?
Zeuk errua eukita
zeu zabilz berbetan,
zer dan neuk esango dot
bertso barrietan.

Zeuk bialdu zenduan
errekaduakin.
esaten nai zendula
ezkondu nirekin.
Baietz erazo arte
ekin eta ekin,
ai nik baneu orduan
zu nor zaran jakin!

Zeuk errekadu ein da
ni zugaz batzeko,
biok bizimoduan
alkarrez jartzeko,
Ta oin modu onetan
atzeratutzeko
zer motibo izan da
ezkontza galtzeko?

Norbera ibili barik
burua jasoten,
auzunetan dakie
polito esaten.
Ondo dakigu zuri
zer jatzun gustatzen:
iñori lan eragin
ta zeu deskantsatzen.

Bilbon kriada eon da
etorri Lumora,
apur bat deskantsetan
osaban ondora.
Or zabiz erregiña
baziñan modura,
zu besteko bat barriz
topau lei non gura.

Lumoko errian dauzan
mutil aberatsak,
nai bazendu lograuko
zendukez zeuretzat.
Alan kontatzen dozu
egaletan beintzat,
kontuz artu etzaizan
norbaitek zorotzat.

Pañelo gorria ta
erropia beltza,
moda ekarri dozu
Bilbotik onantza.
Arro pasatzen dozu
Lumoko aldatza,
baia beste batentzat
mutil aberatsa.

Ez dago zu langorik
Lumoko partean,
zeu zara ederrena
guztien artean.
Zuretzat senargairik
emen parajea
ez dago, Madrilera
mobidu ezean.

Uste dozu zarala
ia erregiña,
ta bai zarala markes
gazte baten duña.
Gorputzez ain ederra,
azalez urdiña,
udabarriko lora
edo klabeliña.

Diputadu gazte bat
logratu artean,
zugaz ez dao gauza onik
bien bitartean.
Senarra dozunean
Madrilgo kortean,
zeu ara urteteko
automobilean.

Markes bategaz laster
ezkontzen bazera,
ta paseatzen joan
beraz Parisera,
geu be despeditzeko
prest egongo gera,
emonik biderako
eun bat bolandera.

Amabi bertsorekin
orra despedida,
Eulalitxo, zurekin
komeriak dira.
Joaten zaranean
Lumotik Madrilera,
enamorauko jatzuz
pañelo gorrira.

106: Lapur famatuaren bertso barriak

Orain kanta barri bat
nai neuke nik jarri,
munduko kriaturen
eskarmentugarri;
trantze estu onetan
guztiz nago larri,
nire pasadizuak
esan barik garbi.

Ia, nire kristauak,
aditu kontuan
nire deskalabrua
zelan dan munduan;
amairu eriotza
urtebete barruan,
neskatxi bat motibo
nola ein ditudan.

Ogei eta bost urte
dauzkat oraindik
orain arte izan naz
beti nekazari;
ein ninduen alperrik
gurasoak azi
ez diet azkenean
emon pena gitxi.

Ai au nire suberte
ikaragarria!
Jaunak bere eskutik
nendukan itxia.
Neskatxi bat motibo
izan da guztia,
amairu pertsonari
kentzeko bizia.

Niri berba emonda
besteakin ezkondu,
orrexek emoten dit
biotzean damu;
utsa zan sikiera
motibo izan balu,
beragatik bear dogu
orain biok galdu.

Bengantza orrekin ba
gau triste batean,
puñal eta trabuko
arturik aidean,
ondo loturik negoan
etsaien katean,
derrepente sartuaz
beraren etxean.

Afaltzen an ziraden
senar-emazteak,
ezkonbarriak eta
ziraden gazteak;
ez zioten emoten
penarik iltzeak,
suerte ona begira
egozan tristeak.

Bost puñalada asteko
emon nion berari,
ez Jesus eta ez amen
joan zan mundutik;
senar tristea egoan
andreari begira,
baiña ezin kenduta
zeukan erida.

Berari tira nion
petxuan erdira
orra zer pasatu zan
esan dot egia;
senar eta emazte
sukaldean biak,
an gelditu ziraden
derrepente illak.

Ez izandu balira
sano eta fiñak
orra zer suertia
gaizki dabillanak;
aziño au eginda
irten du etxetik,
justizia altoka
aziño atzetik.

Jiratu ta tiratu
nik barriz gogotik,
lau gizon tiro batez
an ziran erori;
orra sei eriotza
gau batean egin,
arimak nora ziran
nai nuke nik jakin.

Kristauaren biotza
ikaragarria,
gizonari emoten
alako larria:
utzi zezala bertan
diru ta zaldia,
egin nai ez bazuan
munduko aldia.

Zaldiaren ganean
gizon armatua,
abiatu nintzanean
lapur famatua;
atzetikan banuen
nok arrapatua,
baia billatzen nuan
non ezkutatua.

Partian an ebilen
egun eta gauan,
enemigua franko
banun inguruan;
ia deskantsurikan
ez nendukan iñun,
eta zazpi soldadu
neronek il nitun.

Urte bete osoan
beti lapur egin,
batzuetan kamiñoz,
bestietan mendiz;
ainbeste eriotza
gainera egin,
ez dakit zer gertatu
bear dan nirekin.

Aitak bialdu ziran
niri notizia,
zekiela bezela
asuntu guzia:
erabakia zala
nire sententzia:
arrapatu ezkeru
kentzeko bizia.

Abiso au artuta
urrengo egunian,
partirak arrapatu
ninduen mendian;
zaldia il zidaten
ala bearrian,
zortzi soldaduk tira
ziraten batian.

Bi balazo nituen
beso ta buruan,
odola bazijoan
iturri moduan;
alan be trabukoa
disparatu nuan,
bi soldadu gainera
eritu nituan.

Lenengo niri elduak
bi bakarrik ziran,
baleroso izan arren
umildatu nintzan;
bagaje eta guzti
loturik zaldian,
zortzi soldadu ziran
nire goardian.

Motza asko nizala
egunen erdian,
joan bear izan nuen
guztien erdian;
allegau nintzanean
neronen errira,
bazan jentea franko
neroni begira.

Ua nire orduko
lotsa ta larria,
zergaitik egin neban
asko pikardia;
beala sartu ninduen
kapilla batean,
Santo Kristo bat para
ziraten aurrean.

Esamiña egiteko
nire apartian,
ia zenbat oker neban
arimen kaltian;
pekatarien Ama
Birjiña Maria,
Jaungoikoaren aurrean
bitarteko andia.

Jaungoikoan ofensak
ditut guztiz damu,
arren miserikordia
nizaz izan zazu;
Luzifer azia da
goiko zeruan,
pekatuagaitikan
dago inpernuan.

Ni geiago eginda
bizi naz munduan,
ez dakit niretzat be
zer sententzi dauan;
amaika ordu santuak
ia dira aurki,
il egin bear dot eta
guztiz nago larri.

Kontua emoteko
gure Jesus onari,
adios, mundutarrok,
baita aita ta amari,
senidiakin batian
adiskide danak;
akabatzen dirade
nire munduko lanak.

Arren lagun deidala
gure Jesus onak,
ogeita bost urtekin
banoa mundutik;
obra baten okerrak
nire ondagarri
mundu guztia nigaz
eskarmentu bedi.

107: Bertso barriak

*Unas canciones nuevas
bear ditut jarri,
para las costureras
entretenigarri;
con amores muy tiernos
guztiz nago larri,
porque le quiero mucho
Hipolitari.*

*Cuando te vi primero
kalean paseatzen,
suspendido me quedé
erreparatutzen;
no me determinaba
iñori galdetzen
por el alto del cielo
jatsia ete zen.*

*El domingo siguiente
joan nintzan plazara,
por ver si le podía
eroan jantzara,
para decirle algo
iñondik al bada,
con el amor que tengo
konformatzen bada.*

*Si pudiera publicar
lenguaje bian
cómo está labrada
nire memorian,
parece una virgen
bere presentzian,
con su cara bonita
nire eretxian.*

*– Oiga usted, caballero,
zer dozu pentsatzen?
Por el amor que tienes
nozu alabatzen.
– Una más lechuguina
ez dala aurkitzen
que tú serás para mí
ez jat iruditzen.*

*El Señor disponido
izango al zera,
cuando te has venido
nire biotzera;
me voy a mis amigos
abisatutzera
que me voy con la novia
paseatutzera.*

*Una estrella hermosa
dadukat eskuan,
cuando la tengo aquí
naukazu zeruan;
estáte sentadita
neronen onduan,
dejándome solito
ez zaitez zu juan.*

*– Distinguido tú eres,
galante nirekin,
conformada me quedé
orrenbesterekin;
conservemos primero
esaneko berbekin,
para que nos casemos
biok alkarrekin.*

*Tú estáte seguro
sinestaturikan,
sin perder en tu vida
esperantzarikan;
suspirando te digo
nire barrutikan:
sin fruto no se queda
lora ederrikan.*

*Estos son los amores
bertsotan jarriak,
para los jovencitos
konsolagarriak;
cuando se cumple así
deseo guztiak,
démosle pues primero
Jaunari graziak.*

108: Bertso barriak ...ko neskari jarriak

Bertso barriak ateratzeko
emen badago premia,
tristurak itxi ta alaiturik
oraintxe jarri naz ia;
zenbait personak agindu arren
egiten daki tranpia,
alabatutzen asi bear dot
.....ko nire nobia.

Asko bezala ezkonduzteko
asia nintzan gaztetan,
emakume au orain nirekin
jarria dago kasketan;
guzurra eta saltsa badauka
orrek seitatik bostetan,
arroagorik egongo danik
ez deritxat nik bestetan.

Tratamentua orain bi urte
beragandik zan asia,
deabru zarra bezala dago
ori maleziz josia;
baia damurik ez dadukat ni
neskatxi orrek itxia,
berriz agur ez diot egingo,
egon leiteke etsia.

.....daukat izena,
apellidua.....,
esan bear dot al danik lenen
zer dan asunto guria;
neskatxi orri kantzak jartzeko
orain artu dot idia,
gutxigo merezi duenantzat
inon atera oi dia.

Bitorian nengoa soldadu
serbiziora joanda,
kantak egiten asi zitzaidan
orretarako zegoen da;
zori gaiztoa sinestu nitun
orrek guzurak esanda,
gure okerra sortua dago
ori faltosa izanda.

Neskatxi orren izenik jartzen
ez dit itxi justiziak,
naitago nuen logratu banu
jakin zezaten guztiak;
ni soldaduskatik etorri ta
ezkondutzeko asiak,
jendeak ondo ikasi bediz
orain gure notiziak.

Enbusteria ugari karta
baltzen ziran emendik,
nik orrelako mingain luzerik
ez dot ikusi oraindik;
mutil gaztea engaitatzen
dabil nondik edo andik,
barri onikan ez du ekartzen
orrelakoak inondik.

Donostiako kalean dago
neskatxi ori serbitzen,
ta esan zidan ezkonduzko
berak zuela agintzen;
arrezkeroztik fintasunean
beti nion nik segitzen,
nire kaltian egondu nintzan
zure baimena aditzen.

Egun batean fiatu nintzan
neska orren esanean,
ta jarri gara esposatzeko
prestatutzen garanean;
pentsatu nuen egongo zala
nik ori fintasunean,
amak nai eza atxakiatzat
ipini dit azkenean.

Ni Donostian jaiotakoa,
ori.....-ko errian,
nireganako egondu zara
beti maitasun urrian;
baña alere ez naz aurkitzen
oso estadu larrian,
bein asikora ibili gara
leku estimagarrian.

Mingañarekin leunkerian
dauka abilidadia,
errespetuan ibilitzea
askozaz leuke obia;
baia mundura etziñan jaio
orgullorikan gabia,
zure besteko izar ederrak
geiago ere badia.

Emakumerik ez dot ikusi
orren maitasun otzian,
esker gaiztoa besterik niri
bein ere emon etzian;
mingañez bigun itzezin baia
malezia biotzian,
orlakoakin gusto andirik
ez da izango etxian.

Amaika bider jarduna izan
bear du orrek kontari
orrentzako moduko mutilik
emen ez dala agiri;
maitasuna nok artuko dio
orrela dabilenari?
Egun batean ai zer maleta
ona etorri zan ori!

Juan dan ilaren ogeitabia
dogu señaladamente,
atxaki edo atzerapena
orduan jarri didate.

.....
.....
.....
.....

Ez da andia nik neronekin
dadukadan interesa,
baia atsoak eta alabak
ain orgullo aldrebesa;
oiek nai dute diru askoko
dukea edo markesa,
baia pobrea ezagututzen
leku guztian erreza.

Adios, nire nobia izana,
.....-ko angerutxua,
bertso barriak zuri jartzeko
neukan nire kapritxua;
.....
leiala ta zintzua,
nik onenbestez bukatzen ditut,
alaba eta atsua.

(Kendu egin doguz toki eta giza-izenak, eta puntuz idatzi, neska-mutil horien ondorengoak oraindik biziko dira eta.)

109: Bertso barriak

*Unas canciones nuevas
nai nukez kantatu,
con la esposa mía
zer zaidan pasatu;
con un cortejo nuevo
niri eskapatu,
aquella habrá creído
ez dala pekatu.*

*Que yo dije por ella
ospital batean
que no me visitaras
osatu artean,
que ya tenía otro
bien bitartean;
me dicen que anda ella
Montaña partean.*

*Ama Elgoibartarra
ella de Orozko,
niri eskapatu deust
con otro morrosko;
zazpi urte pasau da
que yo la conozco,
por dónde anda ella
nik ez dakit asko.*

*Dejando a su hija
desanparaturik.
con un pasiego ha ido
plageak arturik.
Ay qué mula tan falsa
eduki nuan nik!
En las tres provincias
etxaok(ez jagok) alangorik.*

*Teníamos una hija,
nor ete du aita?
Como si fuera mía
nik izan dot maita;
en Muniketa, señores,
lenbiziko bentan
como marido y mujer
egon ziran bertan.*

*Bonifacio de Gómez
jan ta edanetan,
le vino su esposa
denpora onetan,
como era muy anciana,
nobia gaztea,
le calentó su mujer
lepoko partea.*

*Los dos dicen que beben
goizetik gaubera,
tres azumbres de vino
edanda oera;
sin dormir en ayunas
askozaz obe da,
la mujer que yo tenía
onetan bizi da.*

*La mujer vendería
gizonaren prakak,
sin que el marido sepa
andrearen tranpak;
la mujer bebedora
ez dok emendatzen,
tiene todos los vicios
daukazanak saltzen.*


*Con una cestilla
besoan arturik,
para imitar en casa
erdi zoraturik,
que solo andaba fuera
burutik faltaurik,
pero aquella no tiene
buruko faltarik.*

*Los mozos de Bizkaia
eta probintzia,
antes de casar pensar
zer dan buztarria;
si buscáis como ella
zeuron ezkongaiia,
para vosotros será
despatxugarria.*

*Yo como era culpante
beste asko ibilita,
tu infeliz marido
aforratu zaita;
viva Jesus, andrea,
Juana eta Juakin,
naikoa esan deutsuet
nai badozue jakin.*

*Por andar en la plaza
eder ta galanta,
muchas tienen, señores,
onetako falta;
una jarra bonita
musturra ausita,
con casi media chispa
albora jausita.*

110: Markesaren alabaren bertsokak



Ze - ru - ak e - ta lu - rrak e -

gin zi - tu - a - na, me - mo - ri - a_ar - gi -

tze - ra a - toz ni - re - ga - na; es -

pe - ran - tza ba - dau - kat ze - do - rrek e - ma -

na, kun - pli - tu - ko de - da - la de -

si - o do - da - na.

Zeruak eta lurrak
egin zituana,
memoria argitzera
atoz niregana;
esperantza badaukat
zedorrek emana,
kunplituko dedala
desio dodana.

Amoriozko penak
bertso barrietan,
publika al banintza
euskal errietan;
enteratu naz ondo
enkargu oietan,
San Jose arrastiko
iruterdietan.

Markes baten alaba,
interesatua,
marineruarekin
enamoratua;
deskubritu gaberik
beren sekretua,
amorioa zeukan
barrenan sartua.

Egun señaia zan
gogoan artzeko,
esan ziola aren
etxera joateko:
“Deseo dodan itz au
manifestatzeko,
zurekin, Antonio,
nago izateko”.

“Zer esaten deustazu,
Juanita, itz ori?
Tentatzen asi zaran
trazak badirudi;
ez zait zure gradurik
tokatutzen niri,
ez burlarikan egin
marineruari.

Eduki dezakezu
ongi sinistua
aspaldian neguala
zutaz gustatua;
etzaitut nik itxiko
desanparatua,
ala egiten dizut
gaur juramentua.

Konformatu ziraden
arkalen artean
ezkonduko zirala
urrengo urtean;
eskolak ikasteko
bien bitartean,
beraren erritikan
guztiz apartean.

Ala disponiturik
jarri ziran biak,
kartaz entenditzeko
arkalen barriak,
formalidadeakin
jartzeko egiak;
baia etziran lo egon
amaren begiak.

“Alperrik izango dira
asarregurian,
ez naude mudatuko
eternidadian;
esposatu nai nuke
kariñu onian.
Antonio Maria
etorten danian”.

Ezin egon zan ama
itz ori sufritzen,
berealasi zen
kartak detenitzen,
intentziño andiaz
ezkontza galdutzen;
Juanitak alangorik
etzuen pentsatzen.

Amaren malezia
korreora joan da
Antonio il zala
egin zuen karta.
Juanitaren tristura
maitea izanda!
Engañatu dau besteak
guzur bat esanda.

Amak esaten dio:
“Juanita neuria,
galdu da, diotenez,
Antonio Maria;
neuk bilatuko deusut
beste bat obia,
maiorazgo interes
askoren jaubia”.

“Ama, ez niri esan
orrelangorikan,
ez dot nik bestegana
amodiorikan;
ezin alegra leike
nire barrenikan,
komentientzia on
egonagatikan”.

“Utzi alde batera
orrelako lanak,
ez ditut nik ikusten
zu bezala damak;
nai badituzu artu
onrak eta famak,
giatuko zaitue
aitak eta emak”.

Denpora kunpliturik
galaia abian,
zer pasatu ete zan
aren memorian?
Kartarik artu gabe
joan dan aspaldian,
iñozente sartu zan
jaio zan errian.

Au da lendabiziko
esan zenduana:
“Zer da musikarekin
onratzen dutena?”.
Markesaren alaba
kalian barrena,
esposario zala
ak bear zuana.

Desmaiaturik egin
zuen ordubete,
gero nobia eske
itz bi egin arte;
inguratu zitzaion
makina bat jente,
bigarren ordurako
il zan derrepente.

Gaube pasatu eta
urrengo goizean
entierua zuben
bigarren klasean;
markesaren alaba
guztien atzean,
zer pena izango zan
aren biotzean!

Penarekin lerturik
Antonio il zan,
akonpañatu zion
Juanitak eleizan;
amorioa zion
esan dodan gisan,
geroztikan etzuan
osasunik izan.

Erremedi al balei
sentimentu ori,
bitarteko bat jarri
Jesus maiteari,
oraziño eginaz
Birjiña Amari,
zeruan gerta dedin
Antonio Mari.

Arkalen konpañian
guk ere nai dogu,
Birjiña, egin zazu
gugaitik erregu,
kristau guztiokaitik
baldin al bazendu;
Iturrinok orrela
desiatutzen du.

(Bertso-paperak zabal ibili dira euskal herrietan. Zeberion be bai eta ugari gainera. Nik neuk aurkitu be egin ditut hainbat bertso-paper, erabiliaren erabili-az zimur-zimur eginda.

Zeberiotarrak, beste askoren antzera, artu bertso-paperok eta buruz ikasten ebezan.

Buruz ikaste horrek, belaunaldiz belaunaldi, aldaketak dakarz eta beste euskalki baten egon arren, norberenera ekarrita sarritan, osoan ez bada, zati handi baten bai behintzat.

Horregaitik, jaso egin ditut bertsook, Don Jose Miguel Barandiaranen aholkua jarraituz, zein? eta haxe: norberea ez dana be, norberaganatzen danean, ez da baztertu behar, jaso eta editzera emon baino.

Ba, horixe egin dot bertsookaz, jaso, osoan edo zatika, barri-emailen memoriaren arabera.

Zeberion aurkitutako bertso-paperen artean, batzuk gazteleraz dagoz, eta honeek be buruz ikasten ziran.

Bat jartzearren, erromantze bat jarriko dot, Lemonako Zubietako zubian gertatutako ezbeharrak Urkiolara bidean.)

111: Romance: Catástrofe en el puente Zubieta, Lemo- na (Bizkaia)

Primera parte

Con lágrimas en los ojos
y el llanto en el corazón,
voy a comenzar, si puedo,
esta triste relación.

El día 13 de junio
de mil novecientos veinte
hubo una fiesta en Urkiola
a la cual fue mucha gente.

Fue el día de San Antonio
día de gran romería,
donde van mozos y mozas,
rebosantes de alegría.

También mujeres y ancianos
van allí a hacer sus ofertas,
y después de haberlas hecho
se dirigen a la fiesta.

Bailan y ríen y cantan,
rezan e ingieren meriendas,
y acabado el festival
se vuelven a sus aldeas.

Así termina la fiesta
tan popular en Vizcaya
y también yo termino aquí
para empezar la parte segunda.

Segunda parte

Alegres y placenteros,
cantando mozos y mozas,
dirígense los romeros
a San Antonio de Urquiola.

Salió desde Arrigorriaga
un autocamión, cargado
con cuarenta pasajeros,
para el sitio mencionado.

Llegaron hasta Lemona
sin ninguna novedad,
mas al pasar por el puente
fue la desgracia fatal.

Dicen que por viraje,
hecho sin mala intención,
chocó con la barandilla
y el automóvil cayó.

El chófer que lo guiaba
era muy poco capaz,
y en punto tan peligroso
perdió la serenidad.

Con una rueda trasera
se partió la barandilla,
y no pudieron salvarse
tantas inocentes vidas.

Una vez en el vacío
aquel enorme furgón,
de los angustiados pechos
salía esta exclamación:

“¡Auxilio, favor, socorro!
¡Dios mío, madre querida,
que por ir a divertirnos
perdemos aquí la vida!”.

Una gran montaña de agua
al caer se levantó,
y debajo del camión
a todos los sepultó.

Apenas se dieron cuenta
de la triste situación,
entablaron una lucha
por lograr su salvación.

El agua teñida en sangre
de tantos muertos y heridos,
no parecía sino que
todo había concluido.

Con una fiereza tal
que no puede describirse,
se agarran unos a otros
para del agua evadirse.

Allí había un matrimonio,
que en plena luna de miel
debajo del fatal río
vió perecer su doncel.

Entre estos hay otro caso
que vamos a mencionar,
y eran dos enamorados
que íbanse pronto a casar.

Él se llamaba Mariano
y la novia era Francisca,
que proyectaban su enlace
para dentro de unos días.

Y con amor puro y santo
su porvenir preparaban,
pero la traidora muerte
la vida a los dos arranca.

Eran dos trabajadores
que elaboraban papel,
para mantener sus madres,
que eran ancianas también.

Y para dar una prueba
más ardiente del querer,
mueren ambos abrazados
como amantes de Teruel.

En cuanto hubo noticias
de esta terrible desgracia,
de todos los caseríos
fueron pronto a remediarla.

Principiaron los auxilios
con cuerdas, palos y una lancha,
que un señor prestó al instante,
que a las víctimas salvara.

Grandes pruebas de valor
se dieron en aquel río
para recoger los muertos
y atender a los heridos.

Uno con la pierna rota,
que el autocamión partió,
sin cuidarse de sí mismo
de la muerte a tres libró.

Alcalde y autoridades,
ténganlo todo presente
y arreglen las carreteras
para evitar tanta muerte.

Ahora a los supervivientes
enhorabuena cordial,
y para los otros pobres
sólo nos resta rezar.

El día de San Antonio
triste recuerdo dejó:
en el puente de Zubieta
al río un camión cayó.

Unos cuantos desgraciados
en el fondo perecieron,
sembrando un día de luto
a Bilbao y al mundo entero.

Y para el año que viene
les voy a recomendar
que a San Antonio de Urquiola
camión no deben de usar.

Un recuerdo dedicamos
a esos pobres desgraciados
que fueron a divertirse
y murieron aplastados.

112: San Antonio Urkiolakolari bertso barriak



Pen-tsa - men-tu bat go-go-ra - tu jat mun-du-



an es-pli-ka - tze - ko gu-ra - so-a-ren a - zi-ke -



ri - a zer dan u - mea-ren-tza - ko.

Pentsamentu bat gogoratu jat
munduan esplikatzeko,
gurasoaren azikeria
zer dan umearentzako,
eta beraren segmentua
bide onean jarraitzeko;
San Antoniok alan zituan
santu andia eiteko.

Bedeinkatua izan dedilla
Antonioren izena,
gaztetarikan izan dalako
umilla eta zuzena.
Bere partetik beti dadukan
ona jainkotasuna,
mundu ontako erromeriak
galduten gaituz personak.

Esan nai neuke San Antonio
noz jaio eta noz il zan,
ganera zelan ibilia zan
beren munduko bizitzan;
erakutsiak emon zituan
Jaunaren bidea zein zan,
orren gomutaz gu euskaldunok
fededun bizi gaitezan.

Milla ta eun da larogei eta
amabosgarren urtian
Portugaleko erreñuan zan
Lisboako ziudadean:
San Antonio antxe jaio zan
munduaren zorionean,
bautismu santua artu eban
zortzigarren egunean.

Don Martin Bruno izan zan aita,
doña Teresa esposa,
onixek biok izan ziraden
San Antonioren guraso;
amabost urte zituan arte
gurasoak eben jaso,
San Agustinen abitua artu
.....jakin lastimoso.

San Agustinen ordenakoak
ziraden kanonikoak,
San Antoniok an sartuteko
beti zituen deseoak;
bai ta sartuta amaika urte
an zituan igaroak,
biotzetikan sentitzen zitun
San Frantziskoren abisoak.

Abitu ori mudatu eban
San Frantziskona artzeko,
ezaguturik komeni zana
munduan predikatzeko;
bere deseo danak zirean
jentea konbertitzeko,
au artu eta gertu jarri zan
noranai abiatzeko.

Abitu onaz amar urtean
bizi izanda munduan,
Jaun zerukoak badaki zenbat
arima salbau zituan;
gaxorik asko sendatu eban
mediku baten moduan,
milagrosoa zan aretatik
urtetzen eben goguan.

San Antonio zan mundu ontan
Jaun Zerukoan ordea,
esana baño erakustea
beti da gauza ohea;
abildadeak azkarrak eta
biotzetik zan noblea,
Jaungoikoagandik eukalako
ona grazia doblea.

Eleizearen eguzki eta
erlijioaren serafin,
gloria eutson Portugal eta
onera Españarekin;
Italiano desoreruta
gerreru inpernuarekin,
asko jakin agiri eta
.....erejiarekin.

Birtutearen konsuelua,
pekatuaren samina,
San Antonio beti izan da
askori ona egina;
predikadore ederra eta
guztiz bitarteko fina,
leku askotan erakutsia
Jesukristoren dotrina.

Itsas ondoan joan zanean
Antonio predikatzen,
an erejeak sineskerarik
bat be ez eutsien artzen;
uretan ziran arraiñai bere
asi izan jaken deituten:
“Etorri zaitez Jesukristoren
berba ederrak aituten”.

Zelan deitu ta alan etorri
arrainak guztiak batera,
euren buruak uretatikan
gora zituen atera;
bendezioa bota zioten
amaitutzeagaz batera,
umildadeaz erakutsita
joan ziraden atzera.

Momentu atan ikusiagaz
milagro ori egiten,
esaten eben: “Jaungoikozkoa,
orain badegu sinisten”.
Berealaxe asi zirean
bautismu santua eskatzen,
andik aurrera aleginean
Antoniori segiduten.

Zer gauza geien senda (z) ebazan
San Antoniok eridak,
pekatariok parau gaitezan
Jaungoikoagana begira;
esaten eutsen: “Bide onari
biortu bada segida,
gerora etorri ez dakizun
geure arima galtzea”.

Kontseju onik asko emonda
joan izan da mundutik,
pekatarioi lagun egiten
beti daukagu zerutik;
zenbat presona osoro gaizki
zeudenak osasunetik,
saneatugai eskatuagaz
joan dira Urkiolatik.

Ni noanetan Urkiolara
an egoten naz begira,
zenbat erren da gaxo tristerik
ara eldu ete dira!
An makulu ta burdin batzuek
kantsetako lain badira,
gaxorik etorri ta osaturik
utzi an danak erida.

Esan neronek esan esanik
guztiak diran moduan,
zenbat milagro egin zituan
San Antoniok munduan;
mariñelari lagundu eutsen
arrisku baten barkuan,
an armoniko txalupa bat
antxe dauka eleiz buruan.

Penitente ta predikadore
abila izan zan artian,
santu eginda Urkiolan dago,
Abadiano partean.
Zenbat erromes inguratzen da
an dagoan para jean,
debozioagaz onartuteko
santu ori barrunean.

Arbolario ta albateruak
dira munduan ugari,
erremedio gisan dabizan
ganadu gaxo danari;
ez naz orretan ni orren kontra,
segitzen baio lanari,
San Antonio baño oberik
ez da ondiño ageri.

Jaungoikoagandik beti daduka
San Antoniok arkantzu,
ondo zaintzeko lur maitea ta
eta gainera itsasu;
kristau fidel on guztiak danok
guretzat bitartekua,
zaintzen gaituzela ainbat persona
eta ganera ganadua.

San Antonio etzan munduan
izan beera zalea,
mendi altuan alturea daukon
berendako parajea;
aldea urrin askotatikan
etortzen jakon jentea,
ezaguturik gureganako
dadukan borondatea.

Dudarik gabe esan bear dot
biotzetikan egia:
gure artean beti ta beti
daukagu zure premia;
euskaldun danok gorde gagizuz,
San Antonio andia,
gero gozatu dagigun danok
zeru altuan gloria.

Ogetamasei urte zituan
mundu onetan pasatu,
milla ta berreun da ogeita amaikan
egin euden lurperatu.

(Bertso honeen barri, Arrazolako sakristau,
Eustakio Ziarsologandik hartua da.)

113: Ondarruako Antiguako Amari

Milla bederatzireun
ganera lau urte,
pelegrinaziño bat
disponitu dute;
agostuen ogeita bat
zen allatumente,
Ondarroara etorri da
makina bat jente.

Ama Antiguakua
bisitatu dute,
Ama Antiguakua
bisitatu dute.

Antiguako eleizati
plazara ekarri,
bere guardian bazan
jentea ugari;
musika ta angeru,
bandera ta guzti,
aurretikan apaiza
guztien nagusi.

Alabantzak emoten
Brijiña Amari,
Alabantzak emoten
Brijiña Amari.

Plazan paratu zuten
beretzat lekue,
loraz apaindurikan
altara santue;
frai pater batentzako
barriz pulpitue,
erriko printzipalak
zan disponitue.

Biba Ondarruako
aiuntamentue!
Biba Ondarruako
aiuntamentue!

Bizkaian bazegoan
jaun oien bearra,
Jesusen dotrinari
emoteko indarra;
bikario jauna be
ez dogu ain txarra,
edadean aurrera
bastante da zaarra.

Sermoi au egin zuen
Ondarruako plazan,
zortzi milla arima
gitxienez bazan;
frai pater jaun orrexek
kontu asko esan,
Jesusen dotrineari
.....

Jesusen pausuetan
akordatzen gera,
guregaitik zer moduz
ibili zan bera;
ikusi nai badogu
beitu kurutzera,
untzeakaz josirik
esku-oñetara.

Etsaiak jarri zuten
modu orretara,
etsaiak jarri zuten
modu orretara.

Arantzazko koroia
etsaiak sartua,
buru guztia dauka
dana zulatua,
lepoti dariola
odolen tantua,
ain zitala izanik
gure pekatua.

Guretzako or dago
Jesus penatua,
guretzako or dago
Jesus penatua.

Nai badoguz arimak
zeruraño jaso,
sekulako bestelan
pekatuan preso;
Luziferren galdara
beroa da oso,
inpernuko etsaiari
zertan egin kaso?

Jesukristo(re)n banderan
egon alimoso,
Jesukristo(re)n banderan
egon alimoso.

Ama Antiguakoa,
biotzez graziak,
arrigarriak dira
zure mirariak;
zuzendu bear gaitu
zure mesediak,
aita San Pedrok iriki
zeruko atiak.

Gloria gozatzeko
arima tristia,
gloria gozatzeko
arima tristia.

Agoniako trantza
etorri ezkerro,
luzaro biziterik
ez dogu espero;
izerdi tantuakin
gorputzetik bero,
azkenengo arnasak
ies egin gero.

Jesusen sententzia
etorriko jaku,
Jesusen sententzia
etorriko jaku.

Ama Antiguakoa,
orain erremata,
agonian urrena
eriotza da ta;
gure defensora
imajina da ta
lagunzalleak ere
makina bat santa.

Zeruan sartuteko
alabantza manta, *(sic)*
zeruan sartutzeko
alabantza manta. *(sic)*

(Bertso honeen barri, Arrazolako sakristau,
Eustakio Ziarsologandik hartua da).

Aurkibidea

Sarrera	7
Berriemaileak.....	9
I - Koplak	11
Jotak	13
Porruak	21
II - Ume-kantak	25
Baten joan nintzan	27
Obabatxua lo ta lo	29
Obabatxua txingorrin gorri	31
Kantaizu kanta txoria	32
Aita aita da txuntxulun berde	33
Txikirrikitsu	35
Txikitxu polit ori	36
Aita ta ama tabernan dagoz	37
Atxea motxea	38
Bost atzamarrak	40
Seintxu txikerra	42
Txirintxaketan	43
Neure maitea Bilbora noa	45
III - Bestelako kantak	47
Ezkondutako damutuarenak	49
Urkiolara joan.....	51

Aita Juaniko	53
Maritxu Petronila	54
San Martinen amabi egiak	55
Gaztea nintzanean	58
Maria Korupekoa	59
Frantziako kortekoa	60
Artoa kamaran.....	64
Ederra ta galanta	65
Atsoa zarra-zarra	66
Arramillete.....	67
Arraska la tximani	68
Patxiko tantanero	69
Maria pitxinena	70
Antonio Goitia.....	71
Saguzarra	72
Belea dabil atxean	73
Domiene-Donibane	74
San Juan bagilean	75
Antonio polonio.....	76
Jose Mose gitarra.....	77
Katalin.....	78
Martin errementari	79
Kanpo de Bolantingo.....	80
Din daun! Nor il da?	82
Klaudio laudio	83
Txakur gorria.....	85
Txondonen katua.....	86
Josepantoni kolore gorri	87
Antonio Mintegiko.....	88
Juan-Juan porrea.....	90
Lelengo txandatik	91
Emen edo emen	92

Peru eta Marie	93
Zer da, Antono Mari	94
Gabon gaubean	97
Santa Barbara	99
Errotari, molinero	100
Arre, arre, mandoko.....	101
Larrosatxuak bost orri	102
Aita San Migel.....	103
Orozkoko errian.....	104
Mari Katalin.....	106
Matxalen Busturiko	107
Nire andrea.....	108
Au zankoa, au biloa	109
Bela-bela jauna.....	110
Uda barria da ta	111
Gaztañas de mentugori.....	112
IV – Santa Ageda abestiak	113
Santa Ageda (I).....	115
Santa Ageda (II)	118
Santa Ageda (III)	121
Santa Ageda (IV)	125
Martirioari itxiteko (V).....	128
Agurra nor zer danari	130
V – Kopla soltuak	147
Amorebietako... ..	149
Urte barri.....	151
Apalazio zalduna.....	152
Pedrotxu.....	153
Txakur andi txaketan.....	154

Abure lepo makurra.....	156
Iru alaba berbaltu edo tartamutuak.....	157
Don, don, Beleron.....	158
Dun, dun, kandil	159
Itsua eta alkatea	160
Gure mutila mutilante	161
Negar ta negar dago Errosa gurea	162
Agur, Santa Marina.....	163
Politak iru alaba	164
 I – Bertsoak	 165
Bertso barriak Lukas de Añibarrok jarriak	167
Mutilzarraren bertsoak	169
Bertso barriak Anbotoko gizon biri jarriak	172
Ezkondututako damutuaren bertsoak.....	175
Kantabriako bertsoak	177
Balentin Berriotxoari bertso barriak	
Xenpelarrek jarriak.....	179
Lumoko neskatillari bertso barriak	186
Lapur famatuaren bertso barriak.....	190
Bertso barriak.....	197
Bertso barriak ...ko neskari jarriak	200
Bertso barriak.....	205
Markesaren alabaren bertsoak.....	209
Romance: Catástrofe en el puente Zubieta, Lemona (Bizkaia)	216
San Antonio Urkiolakoari bertso barriak ..	222
Ondarruako Antiguako Amari	229



JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

Juan Manuel Etxebarria Ayestak, liburu honetan, Zeberioko bere herrian zein Gorbeia inguruan jasotako kanta zahar bilduma eder hau eskeintzen digu musika eta guzti. Bilketa lan hau, beren beregikoa barik, bidebatezkoa izan da bere Etnografiako lan multidisziplinarraren barruan. Era askotako kanta zaharrak agertzen dira eta batzuk aipatzearren hona hemen, adibidez: jota eta porru-koplak, ume kantak, Agate Deunaren bizitza eta eskari bertsoak, gai askotako kopia soltuak, Urkiolako Antonio Deunarenak, bertso-paperak, erromantzeak eta abar luze bat. “Min bako arrana ugerra(k)tx(j)=an” dio Zeberioko esaera zaharrak, baina liburu honen bidez ez da isilduko gure herri zaharraren arrantotsa.



Zeberioko udala

ISBN: 84-89080-96-8



9 788489 080966